

GEU GASTEIZ

GEU ELKARTEAREN BABESARÉKIN



J. Zorrakin

*Marraztea natura aztertze
erabilzen dudan tresna da*

Musika

Ale Hop

Kirolak

skater-ak, zerutik gertu

Elkarriketak

Miren Billelabeitia

Iñaki Zorrakin

Unai Yus

Aldizkaria zuretzat ere bai

EMITIKU PIRENAS GLEZ DE LARATE / ZUZENDARIA

Berriro batean, duela bost urte, paperezko izaki bat jarri zen gure artean. Gasteizko gelatxo batean lehenengo argi izpiak ikusi, eta tikili-takala zenbait etxe eta kale ezagutzera abiatu zen. Txikia, bai, baina ondo zekien zertara etorria zen mundura, Gasteiza...

Euskara, euskaltzaleak, euskaldunak,... Garbi zeukan zein zen lehenengo urte horietako xedea. Euskara bultzatuz, babestuz, euskaraz irakurtzeko aukera emanez, euskaraz bizi ahal izatea. Eta horrela haundixeagoa izan arte, koskortu arte... Gaur egun arte.

Eta bilakaera honetan barrena, hazi ahala, bere janzkera aldatuz joan da, barrutik, kanpotik, gorputza, azala,...Tiki-taka.

Abenduan bost urte bete zituen, eta halaxe esan zigun: "aizue, bost urte bete ditudala,... Badakit oraindik txikia naizela, baina... Askok ikasi eta ikusi dut urte hauetan, jende ugari ezagutu, lagunak egin, baina mundua oso haundia da, eta jendea ere oso desberdina. Munduak milaka aukera ematen dizu, zergatik ez hori profitatu? Urte hauetan zehar horri erreparatu diot, eta gauza gehiago ezagutu nahi dudala konturatu naiz, jende berria... Eta, eta orain arte jantzitako arropa armairuan gorde eta berria erosiko dut... Hazi naiz eta, ja ez naiz ume bat!!!"

Esan eta izan, di-da. Eta hemen duzue dotore eta kolorez jantzita, kontent oso arropa berria estreina-tu duelako. Eta janzkerak bat egiten du izaerarekin. Urteak aurrera joan diren heinean, Geu Gasteiz Aldizkariak hartu du bere bidea, jorratu du bere izaera, eta gaur hemen dugu, kolorez jantzita, kanpotik, barrutik,... bidaiatzeko prest.

Aldizkariak jakin badaki azken urteotan Gasteiztar, Arabarrek euskararekiko adierazi duten errespetua eta ezagutzeko gogoia haundia dela... Jakin badaki berarekiko sentiberatasunak eta sentsibilizazioak gora egin dutela... Baina jakin ere badaki hori ez dela nahikoa...

Aldizkariak jende gehiagorengana heldu nahi du. Euskaratik urrun sentitzen diren horiei (bakoi-tzak jakingo du zergatik, edo gerta daiteke ez jakitea...) euskara eta euskaraz gozatzeko aukera eskeini nahiko lieke, euskarari agur esan beharrean, ongi etorri edota laister arte esan diezaioten. Gutxi batzuen hizkuntza ez dela sentiarazi. Ahal den neurrian, euskara guztion hizkuntza dela ikustarazi, jaberik ez duen hizkuntza, denona eta inorena.

Zergatik urrundu? Zergatik atea itxi? Elebidunak izateko aukera hori zergatik gure buruari ukatu? Aldizkariak badaki bide honetan bere tantatxoak jar dezakeela.


Duela gutxi, honi buruz hizketan ari ginela, Aldizkaria nirengana hurbildu eta zera esan zidan: "...nik gauza bat ez dut oso ondo ulertzen, edo ondoegi ulertzen dut agian, baina... zergatik demontre banatu behar dira, banatzen dituzte, ditugu...euskara eta gazteleraren munduak? zergatik bi mundu? Ez al da bakar bat; osoa, elebiduna? Errealitatea, ezta? Ametsa? Denon, eta denon esan dut, esku dago! Eta ongi etorriak munduko hizkuntza guztiak, "tokian tokiko" a ahandzi gabe, zainduz...

Mundua oso haundia da, denetik sartzen da; non dago arazoa, orduan?..." Luze jo zuen solasaldiak.

Naturaren isladak

Gasteizko Arazgaitzoko teilatuan.
1995eko martxoaren 26kozein egunetan
goizeko 8:00etatik 10:30 etara.

Ekerraldean: Araba-2020 beltza (*Sturnus unicolor*)
Eskualdean: Usatzi turkiarra (*Streptopelia decaocto*)



011 Arabako Natur Institutua 12A

GEU GASLEIZ, Gasteizko
Euskaldunen hilabelekarria

ERREDANZIOA:

Pedro Asua, 2 - 3.a
Telefonoa eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:

Estihu Breñas Glez. de Zarate.

ERREDANZIOBURUA:

Asier Dz. de Karlamo.

ERREDANZIOA:

Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz
de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Raul
Saez de Buruaga, Itziar Uriarte.

ARGAZMAK:

Edorta Sanz.

MAKETA:

Galzaquin Argitarapenak
Telefonoa: 970 40 18 46

INFIGRAFIA:

Alex Badillo.

KOMIKIA:

Iñigo Sarasola

NATURAREN ISLADAK:

Iñaki Zorrakin.

KOLABORATZAILERAK:

Ion Maia, Abel Enbeitia, Mikel
Garmendia, Ane Larrañaga.

PUBLIZITATEA:

Karles Fdez. de Belenc.

BANAKETA ARDURADUNA:

Txipi Ormaekea.

INPRIMATEGIA:

Gerlu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

ALE KOPURUA:

2.500

LG: VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb.

ALDIZKARI HAU PAPER
EKOLOGIKOZ EGINA DAGO

Geu Gasleiz hilabelekarriak
ez du bere gain hartzen
bertan adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.


NATURA

I. Zorrakin:

"Marraztea
natura
aztertzeko
erabiltzen dudan
tresna da"



13
OPP.



Tomas San Miguelek Principal
Antzokia aukeratu du disko berria
aurkezteko

KULTURA

aurunkibidea

iritziak

2 Estitxu Breñas

Aldizkaria zuretzat ere bai.

30 Jon Maia

Begiradak II.

33 Mikel Garmendia

Arabako euskararen lekukoak.

34 Abel Enbeitia

Apirila: arabarren hila.

laburrak

6 Euskara

AEK A ereduaren aurka.

8 Gizartea

Hala Bedi Irratia laguntza bila

elkarrizketak

13 Iñaki Zorrakin

Arabako Natur Institutuko buru.

16 Miren Billelabeitia

Hizkuntza eta Literatura irakaslea.

kirolak

18 Skaterrak

Kirola ala bizitzeko filosofia.

19 Botepronton:

Unai Yus; tximindulana.

kultura

21 Tomas San Miguel

Ten diskoaren aurkezpena.

22 Bertsoak

Txapelketa badatorrela!

23 Artea

Mintxo Cemillanen bi aurpegiak.

24 Musika

Ale Hop, Gasteiz beltz bilakatu zaigu.
Gaurkoak eta betikoak. Gureak.

ohikoak

4 Bertsoa

Santa Barbara azoka

5 Kalea mintzo

27 Kultur Agenda

28 Piti-pata

32 Komikia



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak
diruz lagunduriko aldizkaria

bertsoa

Gasteizko bertso eskolaren eskutik



IZENA: NAGORE LOPEZ DE LUZURIAGA

ADINA: 17 URTE **IKASTOKIA:** KOLDO

MITXELENA INSTITUTOA

IZENBURUA: ARABAKO BERTSOLARI

GAZTEEN EGUNA

DOINUA: MUTIL KOXKOR BAT

Hamalauetan heldu zitzaigun
ail Txapelketa eguna
hamabi neska aritu ginen
osatzen bertso bilduma
inondik ere ez zen ageri
behar zen lasaitasuna
gure ahotsetan nabari zen
genuen urduritasuna
hala ere izotz izan genuen
egun hartan txapelduna.

Bertsotik paperek ere izan zuten
bere saria urrena
ta bukatzean Txusta tabernan
bete genuen barrena
bertsolaritzan maixu zirenak
gero izan genuen tema
Txirrita, Peio, Lazkao Txiki
ea zein zen azkarrena.
Bertsolaritza Araban ere
bizi dela da onena.

santa barbarako azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postazi:
pedro asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

geu gasteiz berria... eta laguntza eskean!

Kaixo lagunok:

Ikusi ahal duzutenez Geu Gasteiz aldizkaria itxuraldatua datorkigu oraingoan. Erabat gainera. Ez dakit asmatu dugun, gu ez baikara inor hori esateko. Aldizkari berria zuentzat da eta zuek zarete aldizkaria zuen gustukoa den ala ez adierazi dezakezuten bakarrak. Jakin, bai, behar duzue intenzio onarekin egin dagoela. Ordu asko sartu izan ditugu Geu Gasteiz zaharkitu hari nolabaiteko liftinga egiteko. Ez dugu makilaje hutsean geratu nahi, baina.

Aspaldikoa zen aldizkaria eraldatzeko asmoa, ia ia aldizkaria bera bezain aintzinakoa. Baina orain arte amets hura ezinezkoa gertatu zaigu, dirua denbora eta jendea behar baita desira genuen birmoldaketa gauzatzeko. Gertakari ugari jazo behar izan da Apirileko zenbaki honek (Apirila arte amets hutsa zena) zuen begiak aurrez aurre edukitzeko.

Zinez, eskutan duzuen aldizkaria zuek bezain harrituta dagoela. Beharko!

Bost urte bete berriak eduki

arren, eri genuen jada hilabete-karia. Medikuri ez gaixotasun hauentzako eta guk geuk ebakuntza egitea erabaki genuen. Zirujia tresnak erosi (zein garestiak diren jakinez gero...) eta gure izpiritua ren ispilu den aur-



pegia sortu dugu. Ez azala baka-
rrik, baita barne-barnea ere.

Geu Gasteiz berriak moder-
noa nahi du izan, gazteagoa (ez
gazteentzat bakarrik), baina batez
ere osatuagoa, informatiboagoa,
eta ahal bada behintzat, hezitza-
leagoa. Diseinu politago edo
itsusigo baten gainetik gauza

ugar eskeini nahi ditugu aldizkari
honekin.

Geu Gasteiz aldizkaria aro
berrian sartu da. Proiektu interes-
garria dago birmoldaketa honen
ardura hartu dugunon burutan
eta horren isla izan nahi du esku-
tan duzun paper sorta.

Baina guk hori guztia
eskeintzearen truke ere zer-
bait nahi genuke zuengandik
jaso: laguntasuna. Holako
kasu guztietan esaten dena
berresatera nator (topiko tipi-
koa). Zuen iritzia, zuen
kexak, zuen nahiak... (zein
plastal) nahi ditugu ezagutu.

Horren adibide duzu sortu
nahi dugun Santa Barbara
Azoka tarte hau. Bertan zuen
agurrak, salerosketa merka-
tua, deiak, etabar luzea bildu
dezakeen Azoka nahi dugu
sortu, aldizkaria lagunak
indartzeko eta lagun berriak
egiteko tresna izan daitekeela
uste baitugu.

Telefono eta faxa (22 21 53)
zuen esku dago. Erabil! Hala egi-
ten ez baduzue Telefonikako ira-
garkietako tipoa kontratatuko
dugu etxex etxe joateko. Zuek
ikus!

Erredakzio-buru zuen laguna

ARABA EUSKARAZ'98

orain dugu garaia



ostiraletan 5:30-8:30
larunbatetan 11-13:30
5:30-8:30

POSTA PASABIDEA, 12

J A T E T X E A

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ

TABERNA

Upabi

San Antonio, 39

IPARRA

taberna

Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81 **GASTEIZ**



SFRAS SAENZ
ERRERERENDUMISTA

1.- Ia Araban dago, beraz Arabako parte izan beharko luke. Eusko Legebiltzarrak lagundu beharko lieke, erreferenduma egin ostean.

2.- Zalantza daukat. Ezagutzen dugu PPkoek nola pentsatzen duten. Ez dut uste bidea errezatuko dutenik.

1.- Zer pentsatzen duzu Trebiño E.A.E.n sartzeari buruz?

2.- Lortuko al da noizbait?

TREBIÑO

Trebiñoko Konderrria, Arabako bihotzean kokatuta dagoen Burgosko lurraldea da. Aspalditxotik da ezaguna trebiñotarren borondatea: Araban erabat integratutak egotea. Historian zehar, trebiñotarrek hamaika aldiz adierazi dute Araban barneratzeko nahia. Trebiñoko herritarren asmoak eta gogoak astinaldi ederra suposatzen dute sasi-demokrata askoren kontzientzian, eta agerian uzten dute justizian oinarritzen ez diren legeen gainetik, Konderriko biztanleen borondatea dagoela. Zalantzarik gabe, bide luze eta malkartsua hasi dute, baina bide gogor horretan ez dira ibiltari bakartiak izango, guztion laguntza izango baitute. Ekin aurrera!



MATILDE MAESTRE
ERRERERENDUMISTA

1.- Normalena iruditzen zait, jendearen bizitzeko modua. Gasteizen egiten dute, beraz, logikoa dela uste dut.

2.- Ez dakit. Lehendabizi erreferenduma egin behar da eta Madril en oztupo asko jarriko dituztelakoan nago.



KONTXA FERNANDEZ
ERRERERENDUMISTA

1.- Trebiño Araban integratuta dago, politikoki hala ezpada ere. Burgosera edo zer egiteko joan behar izatea pena da..

2.- Baietz uste dut, beraiek nahiago izango baitute hemengoak izatea Burgoskoak baino.



JOSE M. SARATXO
ERRERERENDUMISTA

1.- Herritarren nahia errepetatu behar da, eskubidea dute. Beren iritzia buruz erreferenduma egin artean ez dut ezer esan nahi.

2.- Badirudi aurreiritzi bat dagoela, Trebiño Araban sartzearen aldekoa, baina ezustekoak egon daitezke.



ENCARNA SANCHEZ
ERRERERENDUMISTA

1.- Arabaren partaide izan nahi badute ondo deritzot. Gauza guztiak egiteko gertuago daude Gasteiztik.

2.- Gatazka nahasia dago. Politikoki arazoak egon daitezkeela uste dut. Trebiñokoek nahiago dute hemengoak izatea, baina ikusiko dugu.



NAGORE FERNANDEZ
ERRERERENDUMISTA

1.- Geografikoki Gasteiztik gertuago dago eta, gainera, Arabaren barne badago hemengoak izan beharko lukete.

2.- Arabarrak izatea nahiago dute. Bidea motzagoa da eta Gasteizko Jaiak seguru hobeak direla.



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) Osasun Jardunaldiak antolatu ditu apirilaren 24 eta 25erako Bilbon, Neurozientziak izenburupean. 1990. urtean eratu zen OEE eta jadanik 1200 bazkide ditu, gehienak medikuak eta erizainak.

Euskal Herrian Euskaraz 'A' ereduaren aurka

Euskal irakaskuntza aurreratzeko kanpainia nazionalari ekin dio Euskal Herrian Euskaraz (EHE) talde euskaltzaleak. Beste gauzen artean, A hezkuntz ereduak porrot egin duela adierazi zuen EHEk Gasteizen, bertan egin baitzen, martxoaren 11-an, aipaturiko kanpainaren aurkezpena. Peru Alvarez eta Juan Mari Mendizabalek Legea errespetatua izan dadila exijitu zuten. Hauen iritziz, A ereduak ez ditu pertsonak euskalduntzen eta, beraz, Legearen kontrakoa da. Izan ere, Irakaskuntza publikoa arautzen duen Legearen arabera, A ereduak pertsonak elebidunak izan daitezen bermatu behar du eta hau ez da betetzen. Euskal Herrian Euskarazek A ereduaren desagerpena ezinbestekotzat jotzen du, euskal irakaskuntzan aurrerapausuak eman nahi badira.

EHUn literatur lehiaketa bi

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Arabako Campusean antolatu diren bi lehiaketen berri emango dizuegu jarraian. Hain zuzen, Felix Ugarte Itzulpen Lehiaketa eta Fantasi Ipuin Laburren Lehiaketa dira Kultur Hedakuntzarako Zerbitzuak antolatu berri dituenak. Bai bata bai besteak bere seigarren aldia betetzen dute aurten.

Felix Ugarte Itzulpen Lehiaketa Filologia eta Geografi-Historia Fakultateko irakasle izan zenaren omeneko lehiaketan edozeinek har dezake parte. Aurkezten diren lanak Filologia, Geografia nahiz Historiaren inguruko testuen itzulpen tekniko argitaragabeak izango dira, edozein hizkuntzatik euskaratuak.

Fantasi Ipuin Laburren Unibertsita-



te Lehiaketa, berriz, euskaraz zein gazteleraz eginiko lanei zuzenduta dago. Hizkuntza bakoitzeko sari bana egongo da.

Bi Lehiaketetan parte hartu nahi dutenek lanak maiatzaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dituzte Arabako Campuseko Errektoreordetzan, Kultur Hedakuntzarako Zerbitzuan.

Izardui Komandantearen kalea, 2.


1612 Posta Kutxatila.

01006 Gasteiz

Tfnoa.: 18 33 48

'Araba Euskarazek' marrazki eta arropa aurkeztu zituen

Armentia Ikastolak antolatu eta Araian ospatuko den Arabako Ikstola pribatuen festaren marrazkia, arropa eta gainontzeko materialea aurkeztu zuten martxoaren erdialdean Vital Kutxa Fundazioan. Materialea, ohiko lekuetaz gain, festarako propio ireki den dendan dago salgai, Posta pasabidean alegia.



Jadanik neguko arroparen ia %100a saldu denean, Arabako Ikastolen Federakundea eta Armentia Ikastolako arduradunek udako arropa aurkeztu zuten. Horrekin batera, motxilak, erlojuak, boligrafoak, eta beste hainbat materiale jarri dituzte salgai, denak ere ekainaren 7an ospatuko den jaia bultzatzeko.



Arte Ederrei

buruzko Sailik zabalena ezagu ezazu

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak	pintzelak	ak
olcoak	ikatxkiloak	lientzoak
akuazela	kaballetete	olioak

500 METRO KARRATU PAPER-GINTZA, INFORMATIKA ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK



Arriaga
euskalgintza, s.l.

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Billegia: Uritiasolo 2.2. Pabilloia 23 47 00 Fax: 23 49 14



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 43 00 73

Jarrai gazte erakundeak Topagunea antolatu du Gasteizen

Martxoaren 30ean hasita eta apirilaren 5era bitartean, Jarrai erakundeak Gazte Topagunea burutuko du Gasteizen. Astebe-te honetan Jarraik bi helburu nagusi ditu. Batetik, nazional mailako VI. Biltza-rean ekin zioten lan-ildoan martxan jar-tzea, eta bestetik Gasteizko gazteekin (gainontzeko gazte taldeak barne) elka-rrekiko harremanak bultzatzea. Jarraik ekitaldi anitz prestatu ditu aste-betean egiteko. Horrela, besteak beste, Fermin Muguruza, Jon Maia, Euskal herri-ko Gaztetxe eta Bartzelonako etxe oku-patuetako kideak izan dira egunotan Gasteizen.

Topaguneari amaiera emateko Gorbeial-dera mendi martxa egingo du gazte tal-deak. Berau larunbatean hasiko da, arra-tsaldeko 3retan. Gaueko hamaiketan independentziaren inguruko ekitaldia burutuko da.

Igande goizean partehartzaileek Areatza-rantz ekingo diote mar-txari. Areatzatik, autobusez, Bilbon egingo den manifestal-dira abiatuko dira, eguerdirako gasteiza itzultzeko. Izan ere, 3retan Gazte Bazkari Erraldoia egingo da Gasteizko Foru pla-zan. Bazkalostean, ekitaldi politikoa eta kontzertua eta gero, poteo herrikoï batek esango dio agur astebeteko Gazte Topa-guneari.

Arabako euskara liburu ederrean

Euskal Herriko Unibertsitateko Filologiako irakasle diren Henri-ke Knörr eta Koldo Zuazok Ara-

33. orrialdean Mikel Garmendiak 'Arabako euskararen lekukoak' liburua du iritzigai 'berriketan' sailan

bako euskara aztergai duten testu eta lanen bilduma interesgarria aurkeztu zuten martxoaren amaieran Gasteizen. Arabako Euskararen lekukoak liburuan gure hizkuntzaren zazpi ikerlarik ondorio garrantzitsu bat dakarkigute. Beren iri-tziz Arabak ez du historian euskalki pro-piorik izan, bizkaierarekin alderatuz hain-bat bereizitasun izan baditu ere.

Teoria berri hau mendearen erdialdean Koldo Mitxelena gipuzkoarrak esandako-arekin ez dator bat. Izan ere, Mitxelenak Arabako euskarak beste euskalkiekin zer ikusi handirik ez zuela iritzi zuen.

Koldo Zuazok eta Henrike Knörrek zuzenduriko ikerlan eta testu bilduma hau Eusko Legebiltzarrak argitaratua izan da. Hori dela eta, Legebiltzarreko presidenteak, Leizaola jaunak, Knörr eta Zuazo lagun izan zituen liburuaren aur-kezpenean.

**Arabar Errioxako
Promoziorako Elkartek
(APRA) eskualdeko ardoak
bereiziko dituen logotipoa
aukeratzeko lehiaketa burutu-
ko du, Errioxako Kontseiluak
bere ezadostasuna adierazi
arren. Jadanik 300 bat
marrazki aurkeztu dira.**

FORU ALDUNDIAK DENON
ESKOLAREN PROIEKTUA
DIRUZ LAGUNDU DU
Arabako Foru Aldundiko
Kultura eta Euskara Sailak
Arabako Ikastetxe Publikoe-
tako Guraso Elkarteen
Federakundearen Sasi Guz-
tien gaintetik, hodei guztien
azpitik proiektua diruz
lagundu du. Hain zuzen ere
650.000 pezetakoa da Eus-
kara Sailak emandako diru-
laguntza. Sasi Guztien gai-
netik, hodei guztien azpitik,
euskara gure ametsa, gure
ametsak euskaraz proiektua
aurtengo otsailean ospatu
zen. Beste ekitaldi askoren
arteana Festa handi bat egin
zen hilaren 28an, Foru pla-
zan. Festan 5.000 haur eta
gurasok hartu zuten parte,
baina 10.000tik gora izan
ziren Denon Eskolak buru-
turiko ekitaldi ezberdinetan
agertu ziren lagunak. Ber-
tan ere Mari, Denon Eskola-
ren maskota berria ezagutu
ahal izan genuen.

EUSKO IKASKUNTZAREN
KONGRESUAK CD-ROMEN
Eusko Ikaskuntzak 1918-
1995 urteetan zehar antola-
turiko Kongresu guztiak
biltzen dituen Eusko Ikas-
kuntzaren Kongresuen
Aktak izeneko CD-ROMa
argitaratu du. CD-ROMa
PCen erabiltzaileentzat
(Windows 3.1 eta 95) eta
Macen erabiltzaileentzat
baliagarria da. Eusko Ikas-
kuntzako bazkideek 5.300
pezeta ordaindu beharko
dute eta ez direnek, 8.000.
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jaure-
gia. Miraconcha, 48. Donostia.
Tfnoa.: 943 31 08 55



LANDABURU AKADEMIA
KLASE PARTIKULARRAK

Guatemala kalea, 12. behea. Telefonoa: 12 09 50

euskaraz !!

Etxebizitzak gazteentzat

Gasteizko Udaleko Gazteen Zerbitzuak liburu bat argitaratu berri du. Hain zuzen ere, 'Etxebizitzari buruzko

Gida Gazteen-tzat' du izenburua eta etxebizitza erosi edo alokairuan hartu nahi duten gazteentzat dago zuzenduta. Gida honen egoera horretan daudenek izan ohi dituzten kezka eta zalantzak

argitu nahi ditu, egun zer nolako aukerak dauden azalduz.

'Etxebizitzari buruzko Gida Gazteen-tzat' doanekoa da eta gai horretan interesa dutenek Gazteen Argibideetarako Udal Bulegotik pasa besterik ez dute egin behar: Espainia plaza, 1, behea.



Hau da Emakumeak al plato egitaldiaren antolatzaileek promozioa egiteko aukeratu duten irudia

'Emakumeak al plato' jaialdia

Maiatzaren 2an, larunbata, "emakumeak al plato" izenaz jantzita, lau dj (disk jockey) emakumezko antolatutako lehenengo entzunaldi, dantzaldi, jaialdia joateko parada izango dugu: Gasteizko Dardara tabernan (Errota auzoa), gaueko 11etatik aurrera. Bertan dj niñak, Gasteizkoa, dj crisek, Bilbokoa, dj esterrek, Madrilgoa, eta diyei diyak, Gasteizkoa, jardungo dute gozamina asetzeko musika jartzen. Aukera ederra bide eta mundu berrietan murgiltzeko!!!

(ahalik eta zabalena, noski) hilero diru kantitate bat jartzea da, "komunikabidearen independentzia eta kalitatea bermatu ahal izateko".

'Hala Bedi's family'-kide egiten direnek programazio aldaketa eta beste gai batzuen inguruko informazioa jasoko lukete. Izan ere, epe laburreko proiektuen arabera, aldizkari bat ere landu nahi baitute.

Zerbait argitzea behar duenak Irratiko telefonoetara dei dezake, astelehenetik ostiralera bitartean.

Hala Bedi Irratia Aiztogile

kaleko 83 zenbakian dago.

Telefonoak: 120 720 eta 120 921.

Faxa: 120 715.

E-mail: hbi@eusnet.org

'Hala Bedi Irratia' asmo berriak bideratzeko laguntza bila dabil

Hamabost urte igaro dira 'Hala Bedi Irratiak' bere lehenengo igorpenak egin zituenetik. Denbora epe horretan Irratia gure herrietako errealitatean murgildurik izan da, garatuz eta egoera berriei egokituz, baina bere jatorri alternatiboa inoiz ahaztu gabe.

Azken urteotan ahalegin handia egin du 'Hala Bedi' komunikazio proiektua berme osoz garatu ahal izateko, kalitatea alde batera utzi gabe. Irratiak egoitza eraldatu du, batetik,


eta programazioa aniztu ere, bestetik.

Egun 'Hala Bedi' indarturik ageri da, azkenaldian komunikabide askotan nagusi den prentsamolde sentsazionalistaren alternatiba bait da askorentzat.

Baina horregatik guztiagatik, Irratiak laguntza ekonomikoa behar du eta kanpaina bati ekingo dio datozen hilabeteotan, beharrak asetzeko. 'Hala Bedi' arduradunek jakinarazi digutenez, familia bat osatze dute helburu. Asmoa pertsona talde batek

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



GORRIORIAN

Poza eta dezepzioa eliteko arabar txirrindularitzan

Bere denboraldirik garrantzitsuena izan behar zela esan eta hortxe dugu Igor Gonzalez de Galdeano punta-puntako txirrindularien artean lan ikaragarri itxaropentsua eginez. Lehenbizikoz Julian Gorasperen aginduetara, Euskaltel Euskadiko txirrindulari gazteak laugarren lekua eskuratu zuen Murtziako Itzulian, Estatuko korredorerik hoberena izan baitzen.

Erredakzio hau ixterako orduan, Murtzian lorturikoa errepikatu nahiean zebilen Galdeanotarren txikienak, hain zuzen ere Setmana Catalana proban. Bigarren etapa ospatu ostean, hamabost bat txirrindulari baino ez zen geratzen, sailkapen nagusiko lehen postuetako bat eskuratzeko aukerarekin. Horietako bat Igor zen.

Gauzak ez daude, ordea, hain goxo gure neskarik azkarrenarentzat. Izan ere, Izaskun Bengoa 23 urteko laudiotarrak konpetizioko txirrindularitza utziko duela jakinarazi zuen aurreko astean, Espainiako Federazioko Emakumezko Txirrindularitzarako Batzordeko koordinatzailearekin bat ez baitator. Izaskunen esanetan, Carlos Jovellarrek ez du bete-



behar horrek exijitzen duen mailarik.

Gatazka hau bideratzen ez bada Euskal Txirrindularitzak bere korredorerik hoberena galduko luke, baita Espainiako Selekzioak ere. Angel Serrano, Macario taldeko zuzendariak harridura eta tristura adierazi zituen Bengoaren erabakiaren berri izan zuenean: "Orainarte nire txirrindularia gain laguna ere nuen. Izaskunen eta bere familiaren erabakia errespetatzen dut. Oso pertsonala da Bere arrazoiak izango ditu hartutako erabakia hartzeko". Izaskunek bigarren denboraldia zuen aurtengoa Angel Serranoren Macario Txirrindulari taldean.

ARABARRAK ABENTURA KIROLETAKO MUNDIALEKO EZUSTEKO NAGUSI

Fernando Gonzalez, Roman Fernandez, Mikel Sancho eta Javier Vazquez Gasteizko suhiltzaileak Espainiako Huelvan ospatu berri den Abentura Kiroletako Munduko Txapelketan hirugarren lekua eskuratu zuten. Arabar hauen asmoa Txapelketako 36 frogak amaitzea besterik ez bazen ere, azkenean brontzezko dominarekin itzuli ziren Gasteiza. Abentura Kiroletako Mundialean eskalada edota mountain bike bezalako jarduerak izaten dute leku.

EUSKAL HERRIKO TXIRRINDULARITZA BIRAKO ETAPA ERREGINA GASTEIZA

Apirilaren 9an iritsiko da GASTEIZA hilaren 6an Hondarribiak hasiko den Euskal Herriko Txirrindularitza Bira. Etapa Erregina izango da, gainera, gure hiriburuan amaituko dena. Nafarroako Bianatik Gasteiza bitartean, korredoreek sei mendate igo eta jeitsi beharko dituzte. Horien guztien artean Herrerakoa, lehen mailakoa, Gasteiztik 39 kilometro eskasera. Hel-muga, ohi denez, Gasteizko Hiribidean jarriko da.

Sei hilabeterako begien

bistatik kenduko gaituzu

bi lentila - kaxa eta disoluzio bakarreko

beste bi pote **15.000** pta.n

eta gainera erloju bat opari



MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ

ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

LARUNBAT ARRATSALEDEZ
ZABALIK: 5,00 - 8,30

BAUSCH & LOMB

INFORMA ZAITEZ 900 34 35 36 TELEFONORA DEITUTA. IZAKINAK GUKATU ARTE.



Dudarik gabe bere une profesional hoberenean dago. Bere azkenengo bi filmek (Bihotzaren sekretuak eta Airbag) lorturiko arrakastaren ostean, Bingen Mendizabal musika konposatzaile gasteiztarrek EEBBetan

Bingen Mendizabal EEBBetan grabatzen ari da

grabatzeko Betty Kaplan enpresa errealizatzaileren eskeintza bat jaso du. Hauxe izango da Mendizabalek EEBBetan grabatzen duen aurreneko aldia. Baina berri onak ez dira hor amaitzen, Juanjo Mena izango baita Seattle-eko Orkestra Sinfonika zuzentzearen arduraren jabea.

Betty Kaplan zuzentzailea jatorriz Venezuelakoa bada ere EEBBetan kokatuta dago. Hauxe izango da enpresaren bigarren filma, aurretik De amor y de sombra (Maitasunaz eta itzalaz) Isabel Allenderen izen bereko elaberrian oinarrituriko filma grabatu baitzuen. Oraingoan Romulo Gallegos idazlearen Doña Barbara (Barba-

ra anderea) liburua aukeratu dute Betty Kaplanek pantaila handira eramako. Jorge Perugorria aktore kubatarra izango da filmeko protagonista.

Sabin Salaberri musikaria izango da Prudentzio Deuna eta Estibalitzko Amaren omeneko 1998ko jaietako pregoilaria. Aramaiokoak, progoia irakurtzeaz gain, ekitaldi horretan Araba Abesbatzak eskeiniko duen lana zuzenduko du ere.

San Romanen mostra ikusgarria

Miguel Gonzalez de San Roman margolariak oihala eta paper gainean eginiko azken margolanak erakusgai ditu martxoaren 13az geroztik Montehermoso Kulturunean Oihanederra gunean (Ur Biltoki Zaharra izandakoa). 25 urteko artegizon gasteiztar honek neurri handiko lanak ditu oso gustuko eta horren frogarria da apirilaren 26ra bitartean gozagai dugun mostra erakusgarria.

Argazkian ikus dezakegun Lurraldea eta Muga izeneko mihise (oihal) gaineko olioia, 5 x 4 metrokoa, San Romanen azken garaiko kexka eta sormenen adierazgarria da, 1997 urtean margotua baita. Izan ere, 1994az geroztik sortutako margoak jasotzen dira San Romanen azken erakusketa honetan.



San Romanen lanak haserako garai batean, hirurogeita hamarreko hamarkadara bitartean, figuratiboak baziren ere, aipatutako garai hartatik egunera abstrakzio espresionismoan aurkitu du Miguelek bere benetako adierazpide pertsonala. Unibertsitate garaian ezaguturiko Jackson Pollock-en dripping (txorrotada) teknikak liluratu zuen San Roman.

Orduantxe hasi zen espresionismo aformala lantzen, gerora abstrakzio-kora jauzia eman aurretik, batez ere, iparrameriketako hainbat eragin jaso ostean. Egunotan Oihanederra gunean ikusgai diren oihala eta paper gaineko margolanetan, Miguel Gonzalez de San Romanen bilakaera honen islada jaso dezakegu.



GYREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33



**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

euskarrikide

ESTITXU BREÑAS GLEZ. DE ZARATE

NEKSEN ARETO FUTBOLEKO JOKALARI
ETA ENTRENATZAILEA

KIROLA KIROLAGATIK, ALA BIZITZEKO FILOSOFIA BAT?

Bizitzan zehar hamaika bide aurkitzen ditugu, baina guztietatik ezin gaitezke pasa, eta horietako bat-batzuk aukeratu beharra dago. Hauen artean kirola bat izan daiteke, baina kirol hitzaren barruan ñabardura desberdinak ager daitezke; koloreekin gertatzen den lez, beste milaka adibide ez aipatzeagatik. Kirola ulertzeko modua ere, hortaz, ez da bakarria munduan. Eta hori kontatzera noa...

Sarri askotan, kirola hitza aipatu eta, "bah!, niri kirola,...bah!, ez aipatu, ez zait sekula ere atsegin izan", edota "beno, zelako marka ona egin zuen X-ek lehengo egunean", edo bi-hiru-lau.... orduz kirol zehatz bati buruzko hitzak baino entzuten (ez dut hitz egiten esan, ze maiz egokitu zait, niri behintzat, tutik esan gabe egotea, are gehiago emakume izaki, "ezer gutxi ulertzen dugula" aurretik uste izaten baita) egotea.

Hazi, hezi, bizi,..., bizitzaren ardatza, bizitzeko filosofia, biziarena, kirola ulertzeko modua, kirolaren filosofia zehatz bat. Nahikotxo urte behar izan dut honetaz guztiaz jabetzeko, baina niri kirola egiteak eta irakasteak (areto-futboleko entrenatzailea bainaiz) asko eman dit. Esnatu nau, agian. Ez natzaizue "kirola kirolagatik" horri buruz ari, baizik eta "bestelakoaz": Kirolak atzetik, hondoan asko dakar; eta hau berau aurkitzean datza kirolak eman diezazukeen aberastasuna. Oso "lan" interesgarria izan daiteke; entrenatzaile izatea diot, zuk zeuk zein ingurukoek baloratzen dakizun-dakiten unetik, bestela akabo!

Taldean egiten diren kirolez mintzatuko naiz, ez bainaiz ondo menperatzen ez dudana ezertaz hitz egiten ausartzen; emakumezkoen areto-futbolaz, hain zuzen ere. Eta emakumezkoenaz esan dut, esperietziak kirol honetan (eta gainon-

tzekoetan ziur aski ere bai) gizonzko batek eta emakumezko batek (orokorki ari naiz) izan dezaketenean ikuspuntua oso bestelakoa delako.

Hasteko, ni emakumea izanik, "gauzak diren moduan (ez dut behin ere nolakoak diren jakin; eredu bakarra al dago?) aztertu beharrean, naizen moduan egiten ditut", eta honek bere garrantzia duela uste dut. Oso berezitzat jotzen dut emakume batek, neska gazte batek, neskato batek kirol hau hautatzea, arlo honetan eta emakumeekin lan egitea interesgarria iruditzen baitzait.

Hazi, hezi eta bizi. Bizitzan bezalaxe, kirola egitean egoera desberdinei aurre egiten jakin behar da, eta ikasi egiten da. Kirolan kreatibitatea, irudimena,... landu behar dira; bizitzan ere bai. Ezin gaitezke robotak izan, gauzak ezin ditzakegu makinaren modura egin, ez bizitzan barrena, ezta kirolan ere; adimena landu behar da, eta lor daiteke...

Elkar-elkarri ulertzea, jaso-eman, hartu-emanen garrantzia, gorputza zaintzearen garrantzia, ikastearena, aditzearena, behatzea,...; azken finean, kirola, bizitzeko filosofia bat. Ez da kirola kirolagatik, ez da hain xumea... Eta autoestimua? Ez al duzue uste, norberari alde emankorrena ikustaraziz, eta entrenatzaileak berak horrekin lan eginez, IZATEAREN GARRANTZIAZ, EGOTEAREN GARRANTZIAZ jabe daitezkeela?

Eta ageri daitekeen EDERTASUNA (askotan izkutuan dagoena, horretan arreta jartzen ez dugulako)? Gorputzak egunetik egunera egiten ikasten eta ikasi duenaren edertasuna, mugimenduaren edertasuna, hauen koordinazioa, aurpegiak, izerdia, gorputz-adierazpena, esfortzua, jokalarien arteko begiradak, jokoan lortzen duten konplizidadea,... ederra da! Hau guztia da bizitza, hau guztia da kirola! Osasunean hezituz, zoriontsu bizi! Kirola aberatsa da; hori norberaren esku dago! Gauzak ezin dira gaineratik aztertu... Hori errezegia da!

Eta dena euskaraz; zer gehiago eska liteke?

aldizkari
berria
jaio da



eta lagun
berriak
behar ditu

**EGIN ZAITEZ
HARPIDEDUN**

Izen-deiturak _____			
Telefonoa _____			
Helbidea _____			
Kodea _____			
Hemia _____			
Jaiotze data _____		Larribidea _____	
Urteroko kuota: 1.500 pezeta			
Kontu zenbakia (20 zenbaki)			
Enotatzea	Sukurtsala	K.D.	Kontu zenbakia

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA			
PEDRO ASUA, 2. 3A.			
01003 TFNOA.: 22 21 53			

GEU
GASTEIZ

GEU ELKARTEAREN BARBERAREKIN

apirila



Apellaniz
Arriluzea
Markiniz

**tartean Kristobal deuna (1055 m)
eta San Justo (1029 m) mendiak
igoko ditugu**

eguna apirilaren 15ean

irteera goizeko bederatzitxerdi-erdietan,
Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean.

Autobusez joango gara.

itzulera arratsaldeko 5ak aldera

ibilbidea Apellanizetik abiatuko da,
San Cristobal mendira igo, gero San Justo
mendira eta handik Arriluzeara. Bide hau
nahiko mootza denez azken saio bat egingo
dugu Markiniz herriraino.



GEUrekin Mendira GEU Elkarte eta GEU GASTEIZ
aldizkariaren ekimen bat da
tfnoa.: 26 68 12 (Begoña)

geurekin mendira

Txindoki

Orain arteko txangorik arrakastatsuena

NORA: ARALARRERA (TXINDOKI 1346M)

NOIZ: OTSAILAREN 15EAN

MENDIZALEAK: HIRUROGEI INGURU

GEUrekin mendira taldearen
Gotsaileko txangoa Txindokira
izango zela irakurri genuenean,
oraingo honetan mendira ez joateko
aitzakiarik gabe geundela
onartu behar izan genuen.
Azterketak amaitu berri
ziren, denbora soberan
geneukan eta mendirako
gogorik ez genuen falta.

Gure beldur bakarra egu-
raldi txarra zen, baina otsaila-
ren 15ak negukoa baino, uda-
berriko igandea zirudien.
Beraz, talde guztiarekin goi-
zeko bederatzietan elkartu
ginen Txapela tabernaren
aurrean. Nolako sorpresa hartu zuten
antolatzaileek 62 lagun inguru ikusi
zituztenean! Izugarritzko arrakasta
lortu zen egun hartan, ez baitzen
inoiz hainbeste jende azaldu. Aralar
mendizerran 1346 metro dituen Txin-
doki mendia dugu. Larrunarri edo
Ñañarri izenez ere ezaguna da
Gipuzkoako mendi hau. Nahiko bel-
durtuta hasieran, Txindokik aldapa
zorrotzak dituela eta dexente izerdi-
tuko gnuela entzunda baikeneukan,
baina, tira, aurrera! Baina gure ibilbi-
dea Nafarroan hasten zen, Aralar
zeharkatu behar genuelako. Guardet-
xetik (1035 m) igaro ginen lehenen-
go, Errenagako aterpetik (1220 m) eta
Irazustako lepotik (1246 m) geroago,
eta Txindoki puntara igo ostean,
Larraitzen (403 m) autobusak jaso
gintuen. Beraz, denbora luzez ibili a-
rren ez ginen esan ziguten bezainbes-
te nekatu, Gi-puzkoatik igo ez ginela-
ko.

Ibiltzen hastea izan zen gehien kos-
tatu zitzaiguna, zeren behin martxa
hartuz gero, primeran ibili ginen. Oso
polita zen ikus genezakeen guztia eta
eguraldi ederra zegoenez, bista zora-

garria geneukan. Bi herri ikus zitez-
keen bertatik. Momentuan ez gene-
kien zeintzuk ziren, baina berandua-
go esan zigutenez, Ordizia eta Zaldi-
bia omen ziren.

Txindokiren magalera jeitsi eta
bazkaltzeari ekin genion, goseak jota.



Han egon ginen indarrak berritzen,
oraindik jetsiera geratzen baitzitzaigun.
Eta hori baino garrantzitsuagoa
zena: GEUrekin Mendira talde osoa-
ren argazkia! Modeloen antzera egon
ginen ez dakit zenbat kamararen
aurrean, eta barre dexente ere egin
genuen. Txangoa amaitzeaz zegoen
Larraitzen heldu ginenean. Egun
guztia iturri baten bila eman, eta
azkenik topatu genuenean ez dakizue
nolako errenkada osatu zen berau
hustutzeko prest! Autobusera igo eta
Gasteiza abiatu ginen, egun zoraga-
rria igaro genuelakoan. Zortziak
aldera iritsi ginen Gasteiza; elkarri
agurrak esan, eta gero norbera bere
aldetik joan zen.

Txango hau GEUrekin Mendira tal-
dearekin egindako lehena izan zen
niretzako, baina ziur egon zaitezte
azkena ez dela izango. Apurtxo bat
lotsatuta hasieran, euren artean
gehienek elkar ezagutzen baitzuten,
baina oso giro ona bizi izan genuen,
eta izugarri gustora sentitu ginen
egun osoan zehar. Errepikatze-
ko moduko esperientzia!!!

ANE LARRAÑAGA

Arabako Natur Institutuan mikologoak, geologoak... ezezik, oso marrazkilari onak ere elkartu dira. Geu Gasteizen hurrengo zenbakietan haien lanak ezagutzeko aukera izango duzue. Hauetako bat Institutuko burua den Iñaki Zorrakin santurtziarra daukagu.

anari beltza. La vida en el Parque Natural de Valderejo (1991) liburuan argitaratua.

TESTUAK: RAUL SAEZ DE BURUAGA ARGAZKI ETA MARRAZKIAK: IÑAKI ZORRAKIN

inaki ZORRAKIN

Arabako Natur Institutoko burua eta marrazkilaria

Ikartean sartzeko marrazkilari ona izan behar al da?

Ez dauka zer ikusirik. Txiripaz marrazkilari batzuk bildu gara elkarte honetan. Gure lana dibulgazio arloan zentratu da, kanpoan aztertu ohi duguna, marrazkien bidez zabalduz.

Nola egiten dituzu marrazkiak, bertatik bertara, edo argazkien bidez?

Segun eta... Paisaiak eta landareak zuzenean egiten ditut, ahal dudan neurrian behintzat. Hori da proposena. Piztiekin zailagoa izaten da, laguntza gisa argazkiak erabiltzen dituzu. Hala ere, mendira joaten naizenean apunte batzuk hartzen ditut. Ez duzu astirik marrazki on bat ateratzeko.

Naturak irakas diezagukeena marraztuz ikasten al duzu?

Argazki batean oinarrituta izakien eta naturaren oso informazio gutxi daukazu. Nolakoa den bai, baina nola mugitzen den, bere bolumena. Hori argazkietan ez da azaltzen. Aldez aurretik naturan murgilduta egon bazara, izaki guztiak behatuz erreferentzia mordo bat daukazu lan on bat egiteko. Dena den, gaur egun, denbora falta dela eta, askotan argazkiak baino ez ditugu erabiltzen. Naturan orduak ematea derrigorrezkoa

da, lan on bat egin nahi bada behintzat, baina honengatik ez dugu ezer kobratzen, eta ordu piloa izan ohi dira askotan, guztietan ez esatearren. Hau guztia da natura marrazten dugunok harenkoa.

Zenbat denbora pasako zenuke marrazten?

Nik egun osoa batzuetan. Normalean ez duzu astirik.

Zer marrazteak poztuko zintuzke?

Naturak berak. Txikitatik gurasoek bultzaturik marraztea izan da anai-arreben arteko etxeko zaletasuna. Haurtzaroan denetarik marrazten nuen, baina laster natura marraztea gustuko nuela ohartu nintzen.

Zer zara gehiago naturalista ala marrazkilaria?

Naturalista argi eta garbi. Eta biologoa baino gehiago naturalista sentitzen naiz. Marraztea treshatza daukat. Arte ederretako ikasketak hasi nituen, baina horrek bakarrik ez ninduen asetzen. Benetan betetzen nauena natura da. Marrazkien bidez gai hori garatzea eta isladatzea lortzen dut.

Non argitaratzen dituzu lanak?

Lanak erakunde publikoekin, Foru Aldundia-ekin edo Eusko Jaurlaritzarekin, egin dira. Normalean, ia kasu guztietan, haiek argitaratu



“marraztea natura aztertze-
nik erabiltzen dudana tresna
baino ez da”

Zorakin

dituzte. Gure ka-
buz egitea pentsa-
tu dugu maiz, bai-
na hori inbertsio
bat da, eta lan
honek ez du hain-
besterako ematen;
hala ere, argitara-
tzearen kontu hau
beste abentura bat
izan daiteke, be-
harbada egunen
batean arriskatu-
gara baina mo-
mentuz beti egin
izan dugu eraku-
deen laguntzaz;
beharrezkoa da.

Ama Lurraren seme-alabak ikertuz

Arabako Natur Institutuak 10 urte darama
gure herrialdearen gainean lanean

orbeiako Mairulegorretako koba-
zuloetan zehar ibiltzea oso espe-
rientzia polita izan daiteke. Kar-
buroaz lagunduta, leizeak eskein-
tzen duena ederra da benetan.
Mario Laurino askotan ibili izan
da galeriaz galeria, zoruan zula-
tuz, beste garai batean bizi izan
ziren animalien aztarnen bila.
Aurrehistoriako hartza moduko
animaliak adoratzeko zituzten ala

ez aztertzen saiatu da. “Zientifiko-
ek dute hitza, nik bakarrik, nire
lanen etekinak komentatzen ari
naiz” azaltzen zuen Mariok *Otaka*
Boletinan, Arabako Natur Institu-
tuak bere berrehunen bat bazki-
deen artean banatzen duen argita-
rapenean.

Elkarte honetan bakoitzak bere
nahiak bete ditzake. Gogoia beste-
rik ez da behar; Mariok Paleonto-

logia arloan, kuaternarioko fau-
naz zentratu du bere lana. Hala
ere, hogeit bat lagun beste proiektu
batzuetan murgiltzen dira.
Botanikariek, adibidez, Aranzadi
naturaren aldeko Gipuzkoako
elkartekoekin lan talde bat osatuz,
Euskalerriko eta inguruko lurral-
detako florari buruzko argitarape-
na bukatzeaz dute. Zoologoek
urtez urte ur hegazti eta zikonien

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisan lanak
lorategi eta barnualdeko-proiektuak
egiten ditugu



ALTZARIAK

Herreria 38, behea tfnoa.: 25 25 03 01013 Gasteiz

Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobeia

Kutxileria 23

populazioaren jarraipena egiteaz gain, beste batzuen artean, Gorbaiako ornodunen ikerketaren gainean lanean jarraituko dute buru belarri

Aurretik mendira, bailara eta azal azpiko kobazuloetara joanez ingurugiroa ikertzen da, jorratu nahi den gaiaren arabera, eta gero lortutako informazioaz baliatuz, azterketaren fruitua gizarteari jakinarazten zaio, txosten liburuaren, ibialdien edota hitzaldien bidez. Horretarako urtero ekitaldien plangintza prestatzen da eta holan Arabako Natura Institutuari esker inguratzen gaituena hobeto ezagut dezakegu. Gure herrialdeko ezaugarriak aztertzen dituzten berrogeita hamarretik gorako argitarapenetan parte hartu dute elkarte honetako kideek. Lan bakoitzak ordu anitz eskatzen ditu, eta askotan burututako lana musutruk egiten da.

Sarritan ekimenak aurrera eramateko dirua falta da. Proiektu gehienak, Elkartearen bidez, erakunde publikoetan aurkezten dira, dirulaguntzak jaso ahal izateko. Hala ere, beti ez dago sosik eta ekimen dexente baztertu

behar izan dute, edo, ahal den neurrian laguntzarik gabe egin.

Hamar urte lanean

Arabako Natur Institutuaren lehen urratsak 1973 urtean koka daitezke. Urte horietan Foru Aldundiarekiko harremana oso es-tua zen, Kultura Kontseiluaren barnean partaideak baitziren. Baina orain hamar urte Kontseilu horren desagertpenarekin elkarte pribatu bihurtu zen. Urteurrena ospatzeko ekitaldi batzuk antolatu dituzte.

Pisu batean lanean hasi eta Doña

Otxanda dorretxean dagoen Arabako Natur Zientzien Museoan egonez geroztik, orain bost bat urte apaiztegiari jarri zuten bere egoitza. Egia esan, "Doña Otxanda dorrean azpiegitura aldetik oso eroso geunden" aipatzen du elkar-

teko burua den Iñaki Zorrakinek. "Nolabait geuk bultzatu genuen museoa eta handik joatean dena moldatu behar izan genuen. Mendiko lanak ez dira gehiegi aldatu. Baina bulego lanak bai. Laborate-



Artur Koloban 2003

giak, adibidez, orain ikasleentzako izan ziren komunetan dauzkagu kokaturik". Hala ere, gustura daude, "jende dexente hurbildu da Institura eta dagoeneko gune arazoak dauzkagu", baina tira!

Kanpainak, irteerak, ikastaroak bultzatzeaz gain, iaz bazkideei zuzendutako 200 mila pezetako beka atera zuten. "Geologia eta



(Kantabria)
eginiko
ibialdia.

"gustura gaude; jende dexente hurbildu da Institutura eta dagoeneko gune arazoak ere baditugu"

ingurugiroa. Ibilbideen gida" izenburupean bi geologoek, Hasier eta Ruben, ekimen hau garatuko dute.

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

MIKO

izozkiak



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

billel miren labaitia

Elkarbizitzarako tresnarik beharrezkoena hizkuntza bera izango da ziurrenik eta, adituek diotenez, komunikazio falta da XXI. mendearen atarian dagoen gizartearen gaitzik nagusienetakoa. Miren Billabeitiak dioenez hizkera bera erabiltzeko modu ezberdinak daude, guztiak baliogarriak, baina gaizki ulertuak sortu ditzaketenak.

TESTUAK: LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI

Komunikazioaren sexua

izon eta emakumeen arteko hizkuntza erabile-
ra ezberdinak solasaldi eta hitzaldi luzeetan
nabaritzen dira gehien. Horrela, gizonak
"zuzenagoak dira, zehatzagoak, eta ondorio
zehatzak ematen dakite; informazio murriz-
goa eman ohi dutela ere egia da." Gizonezko-
entzat garrantzitsuena interesatzen zaien hori
esatea da Miren Billabeitiak egin dituen azter-
keten ondorioz, eta ez horiek esateko modua.

Bestelakoa omen emakumeen komunikatze-
ko modua, lagun arteko solasaldi modua
nahiago izaten dute andrazkoek Billabeitiren
ustez: "Besteek zer pentsatzen duten galdetu
eta iritzi horiek bere diskurtsoan integratzeko
joera dute, ziurtasun falta puntu bat ere nabati-
tzen zaie askotan".

Bizitzaren esparru publikoa gizoeni erretser-
batutako arloa izan da urte askotan zehar eta
emakumeek, oraindik ere, atzerapen horren
eragina ordaintzen darraite: oraindik ere gizo-
nek baino ziurtasun falta handiagoa ageri du
emakumeak eta gehiago erakutsi behar duela
ematen du zenbaitetan.

Hala ere, komunikatzeko orduan andazko
eta gizasemeen arteko ezberdintasunak ez dira
kulturak eta gizarteak eragindakoak bakarrik,
aldea biologikoa era bada Miren Billabeitiak
dioenez.

Miren Billabeitiak azaldu duenez burmuina-
ren bi aldean erabilera ezberdina egiten dute
bi sexuek: "Gizonek burmuinaren bi aldeak
bereizituagoak dituzte eta gure kasuan, emaku-
meon kasuan, baterago funtzionatzen dute
alde biek". Bi funtzionamendu ezberdienen
adibideak txiki-txikitat ikusten direla dio ira-
kasle bizkaitarrak: "Neskatoak lehenago has-
ten dira hizketan, hobeto erabiltzen dute min-
tzaira umetan eta tonu gehiago emateko gauza
dira".

Miren Billabeitirentzat egokiena bi komuni-
kazio moten uztartzea litzateke: emakumeek
bere ideien berri zehatzagoa ematen ikasi
beharko lukete eta gizonek besteen iritziak
haintzakotzat hartzen. Adierazpen modu bat
hautatzekotan, hala ere, emakumezkoen bidea
etorkizuneko eskakizunei erantzuteko egokia-



goa dela onartu du. Bere ustez "Gero eta garrantzi handiagoa dute elkarrekintza eta harremanek eta emakumeok besteen iritzia integratzen jaioagoak gara, gizonen alor guztiak lehia edo joku bihurtzeko joera daukaten bezala".

"Ez nau ulertzen"

Aldeak alde, Mirenek komunikazio modu biak baliogarriak direla eta horiek ezagutzeko beharra azpimarratu du, "modu ezberdinak daudela ohartzea lagundu egiten da-uzkun." Irakaslearen iritziz, komunikazioak huts egiten duenean bide alternatiboak bilatu behar dira, metaforak eta antzerako baliabideak.

Mirenek topiko bi erabili ditu komunikazioa ulertzeko modu ezberdinak azaltzeko. "Zenbatean entzun dugu emakume bat esaten gizonak ez duela ulertzen? Agian beste era batera esan behar ditugu gauzak: besteari zaila egiten bazaio detaile ugari hornitutako azalpen luzea entzutea, beste bide bat bilatu beharko da".

Askotan errepikatutako beste topiko bat emakumeak ordu luzez hitz egiteko gauza direla, gai berdinari bueltak eta bueltak ematen.

"Hala da. Baina emakumeoi gehiago interesatzen jaku solasaldia, harremana bera jarraitzea, gaia bera baino."

Komunikabideen eragina

Komunikabideek hizkuntza eta hizkeran izan duten eraginaz hitz egiterakoan bi alde ikusten ditu Billabeitiak. Batetik, euskararen bezalako kasuetan eragin ona dutela uste du: "Gurean, euskarari izugarritzko mesedea egin dio irratitelebistak, alfabetatua ez den

"emakumeok besteen iritzia integratzen jaioagoak gara, gizonen alor guztiak lehia bihurtzeko joera baitute"

jendeak batuaren giltza hartu ahal izan duelako".

Baina gainontzekoan duen eragina ikusentzuneke medioak sortu zirenean izango zutela uste zelaren oso bestelakoa izan dela dio. Izan ere, irratia eta telebista sortzean, irakurtzen ez zekitenentzako mesede izango zela pentsatu zen; alegia, horien hizkuntza maila hobetzea lortuko zela.

Gaur egun horrelakorik ez dela gertatu esan daiteke eta ikusentzuneke komunikabideek, batez ere telebistak, duten eragina kontrakoa da: hizkuntza estandariza-

tu egin du eta, ondorioz, pobretu. "Egun telebistak guztiengana iristea bilatzen du eta programazio arina eta dibertigarria jartzen du, erabiltzen den hizkuntza ere saioen arabera da, oso estandar eta apala".

"aluzinatzen dut"

Gazteen euskara mailari buruzko kezka (edo mamuak berpiztu nahia) ez da sekula guztiz itzali eta neska-mutil elebidunen hizkeraren pobreziaz jarduten duten ahotsak entzun dira duela gutxi ere.

Miren Billabeitiak gazte euskaldunen hizkera maila pobre xamarra dela onartu du, baina gazteleerazko esamoldeak erabiltzeko ohitura handia dagoela. "Bai, nerabeen euskara pobretu da, baina gazte ingeleses ingelera pobretu den neurrian edo frantsesen frantsesa,..." Hau da, adin kontua da, ez hizkuntza edo hezkuntzarena.

Miren Billabeitiak dioenez gazteek efektibitate handiko esamoldeak bilatzen dituzte, zurrara bat sortuko duen hizkera: "Ez jake hizkuntzaren aberastasuna kezkatzen; interesatzen zaie zer esaten duten, ez nola.

Guztia modak eta komunikabideen eragina ahaztu gabe. Gazteek mintzaira propioaren barruan oso normalak dira "autobus hitzak" deritzonak, testuinguraren arabera esanahia aldatzen duten hitzak dira horiek: "Eta solaskidea harian dagoela suposatzen denez, ulertu eta dekodifikatu du botatuko mezua".

Hala ere, eta gaztetasunarekin zelkusi duten gaitz guztiak bezala, hizkuntzaren pobretasuna era urteekin gailinditzen da Miren Billabeitiak irakasleak dioenez: "Basketetan aurrea joaten diren neurrian, hizkuntza egokitu egiten dute gazteek. Lanean hastean ere komunikaziorako tresna hori egokitzearen beharraz ohartzen dira". Horren ondorioz, beste hizkera pobre, gazte eta standar hori lagunarteko giroarako uzten dute, eta urteekin erabat baztertuta geratzen da.

Skateboard

kirola ala bizitzeko FILOSOFIA

TESTUAK: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL
ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

Kalifornia, hondartzak, yankeak... Euskal Herritik urrun dugu skateboarden sehaska. Zuetako askok ez duzue skateboarden berririk izango, egia esan, ezta nik ere, gaztea nintzela, patin deitzen baikenion lau gupil dituen taula arin horri. Baina, bai, Kalifornian jaio zen skateboard jarduera. Dakizuenez, bertako hondartzak surferrez gainezka egoten dira; horiexek aspertzen ziren olaturik ez izatean, eta orduantxe asmatu zuten skateboard, antza. Zirrara berriak sentitu nahian, itsasoko ohola alde batera utzi, eta beste bati gupilak jarritz, ziztu bizian abiatu ziren Los Angeleseko kaleetan barrena.

Ohartu gabe, skateboarda, gurean patina, mundu osoan zabaldu zen, eta noski, Gasteizen ere horrela gertatu da. Baina, zer da skateboard deitutakoa? Kirola edo bizitzeko era? Beti bezala, iritzi desberdinak ditugu; halere, San Martin parkeko pistan topatu genituen mutilek argi dute: "Gure ustez, ez da kirola, bai ordea, bizitzeko filosofia bat". Filosofia hori azaltzeko eskatu diegunean, "ez dakigu azaltzen. Guk egun osoa ematen dugu patinaren gainean. Lanean gaudela ere, honetan pentsatzen

dihardugu: oztopo berriak, salto ezezagunak... Milaka lagun egin eta ehundaka leku ezberdin ezagutu ditugu skateboardi esker. Gure ustez, ez da kirola". Tribu hitza atsegina ez duten arren, aitortzen dute: "patin gainean trebea zarela erakusten badiguzu, gure taldean sartuko zara, bestela ez duzu gurekin zer eginik".

Lehen otso, orain uso.

Skateboarden aritzen diren neska-

Lehen
gaiztoak
ginen,
egun
bihurriak
baino
ez!

mutiak janzteko era berezia ere badute. Hain zuzen ere, beren arropak modan ditugu merkatuan, "arin ibiltzeko eta itzulipurdi ederrak egiteko, prakek erosoak, zabalak izan behar dute. Orain jantzi horiek gainerako gazteek ere bereganatu dituzte, baina lehen gaizki ikusita zeuden, gu bezalaxe. Orduan, gizar-teak gaiztotzat hartu gintuen, egun, aldiz, bihurriak baino ez gara". Jantzeko era dela eta ez dela, "hemen ere harroputz handiak daude" gaineratu dute.



euskaldun izan nahi dugulako

**EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!**



Zurekin 600.000 irakasle
izango gara 2.300.000
ikasle euskalduntzeko

izena eman  n!

Peru 8	Mardones 8	Arana 30
22 60 50	26 35 40	25 24 00



e
g
u
n
e
k
o



Lanean
gaudela

ere, none-



tan per-
tsatzen
dihard-
gu:
Oztopo
berriak,
salto
ezezag-
nak...



Millaka
lasaitu eziti
eta
enandaka
leku
ezberdin
ezagutu
ditugu
skateboard-
di esker

Ahal duten guztietan Gasteizetik alde egiten dute, "hemengo pista txarra baita, San Martingoa, alegia. Arkitektoei txarto eraikitzen ari zirela behin eta berriz esan bagenien ere, ez ziguten jaramonik egin, eta noski, gaizki egin zuten pista. Orain beharrezko aldaketak egiteko berandu da, konpontzeko zaharra behera bota eta berri bat eraiki behar da eta". Bukatzeko, esaldi borobila egiten dute: "Skateboard ez dela hemengoa? Aberri honek ez dit eskaintzen Estatu Batuek eskaintzen didatena".

botepronton

Unai Yus

Afizionatuen mailako txirrindularia



Amets egingo dugu. Bata ala bestea: 200 milioi patrikan ala Indurainek lortutakoa bereganatzea?

Indurainek lortutakoa, hori egiteak 200 milioiak ekarriko lituzkeelako.

Txirrindularitza mundua zelan dagoen ikusita, hobe futbolaria izatea?

Hori esango nioke nire semeari.

Gainera, egunean 2 ordu baino ez dituzte entrenatzen, eta ez dute Tourmalet-a igo behar...

Hori da. Guk 3 ordu gutxienez entrenatzen ditugu egunean, asteko zazpi egunetan, eta oporretan hilaibetebaino ez. Txirrindularia hiru astetan jarraian egon daiteke txirringa gainean, futbolaria, berriz, bi partidu astetan, eta kexati agertzen dira.

Diotenez, egungo gazteria indibidualista da...

Bai, horrela diote. Dena den, heziketaren eta lagunaren araberakoa izaten da hori.

Eta kalean, euskaldunak izan arren, gehienak erderaz mintzatzen gara. Euskara bihotzean, eta erdara ahoan...

Gaurko txirrindularitzan ez da batere erraza profesional mailara salto egitea. Unai Yusek ondo baino hobeto daki hori, eta 23 urteekin erabaki garrantzitsu bat hartu du, aurten saltorik egiten ez badu, txirrindularitza utziko du.

Bizi garen hirian erdarak presionatzen gaitu, halere, egoera aldatuz doa, gazteen artean, batez ere.

Araba Euskaraz bezalako ekitaldietan, aldiz, guztiak gara euskaldun peto petoak...

Hipokrita hutsak gara. Interesatzen zaigunean bakarrik gara euskaldunak.

Gasteiz hotza omen da, eguraldiaz gain, bertakoak ere bai?

Nire ingurukoak, behintzat, ez.

Euskadi taldeko etorkizuna beltza ala arrosa da?

Etorkizuna argitzen ari da. Euskaltel enpresa sartzean baikor daude geroari begira.

Gizarteko tropelean zein dago soberan?

Politikari gezurti asko, manipulatzailerak.

Zure ustez, guztiok ezagutzen dugun Indurain benetakoa ala irudia baino ez da?

Nire ustez, ez da agertzen den bezain hotza. Barruan deabru txikia ere izango du, eta noizean behin bihurkeriak ere egingo ditu. Hori bai, gauzak bitan pentsatzen dituela begibistakoa da.

MARRAZKIAK
KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK


zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- GASTEIZ
- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- FotoKopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean
- Arte ederretarako...
- behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKO




BAQUE KAFEA
XUABEA

Kafe hauek denak...
FREXKOAK
XIGORTU BERRIAK
XUABEAK.....dira

Egunero herriz-herri banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.

kide **APAINDURA**
Cercas Bajas, 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ

k - - -



Tomas
San
Miguelen
Ten
CDa
apirilaren
4an

aurkeztuko
da
Principal
Antzokian,
20:30etan.

EUSKAL ERROAK WORLD MUSIKAN EZINHOBETXERTATZEN
DITU MUSIKARI GASTEIZTAR INTERNAZIONALISTENAK

Ez da ohikoa etxeko musika talde edo bakarkako musikari lokal batek mundu osoan arrakasta lortzea. Konpetentzia inoiz baino gogorragoa den garai hauetan zaila, oso zaila gertatzen da baten lanak mugaz beste gitea. Tomas San

Miguelen istorioa, beraz, salbuespena da. Hiriak azken hamarkadetan eman duen musikari birtutetsuenetakoa denak, Erritmo Etniko eta Musika Berrien munduan, bere izena daraman gune bat eskuratu du.

Duela hiru urte Txalaparta argita-

TESTUA: **ASIER PZ. DE KARKAMO**
ARGAZKIA: **JON HERNAEZ**

letxeak Tomas San Miguelen Lezao lana kaleratu zuenean, inork gutxi espero zuen diska hark lortu duen oihartzuna izango zuenik. Narada zigilu iparamerikarrak mundu osoan banatu du Lezao eta, kritikarien laudorioak jaso ostean, world musika sailkatzen duten lista europarren aurreneko postuetan sartu izan da.

Egunotan Tomas San Miguelen bigarren diskoak (Txalapartarekin kaleratzen duen bigarrena, alegia) Gasteizko eta Euskal Herriko musikadendak bisitatu ditu. Ondoren, Nuevos Mediosen eskutik Estatuan eta Naradarekin munduan, Ten izeneko CD hau berrargitaratuko da. Dударik gabe, Lezaorekin izandako arrakastak bidea labainduta utzi dio Tomasen disko berriari. Nolanahi ere, Dissidenten talde alemaniarren musikari den Marlon Klein izan du San Miguelek Ten laneko ekoizle, eta hori ere lagungarri izango zaio.

Ten bi urte luzeko lana jasotzen duen diskoa da. Denbora horretan musikari gasteiztarrak euskal musikaren sustaiak eta etorkizuneko mugarik gabeko doinuak txertatu ditu. Horretarako izen haundiko hainbat musikariren laguntza izan du: Samaniego abesbatza, Aitor Saenz de Cortazarren gidaritzapean; Javier Paxariño, flauta eta saxoan; Fernando Auzmendi 'Perdi' eta Ibon Otxoa, txalapartarekin; Kepa Junkera, trikitixa eta panderoarekin; Ibon Koteron, albokan; Michael Etxekopare, txirularekin; Luis Delgado, perkusioan; eta Jose Pereira, baxuarekin. Horietatik guztietatik gain, eta Tomas San Miguel denen buru izango delarik, noski, Ten diskoaren aurkezpenak ezusteko bat ere izango du, bakarlari gisa arituko den eta bere izena aditzera eman ez den emakumearena, hain zuzen.



HEGOALDE
euskaltegia.

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!



27
geu gasteiz

CD-Rom

**IZENBURUA:** BERTSOEN MUNDUA

ARGITALETXEA: ELHUYAR

BERTSIOAK:

MACINTOSH 7.0 sistema eradilea edo berriagoa.

eta PowerPC procesadoreal

SALNEURRIA: 8.000 PEZETA

Bertsoen Mundua Elhuyar argitale-
txea eta Euskal Herriko Bertsotale
Elkartearen arteko hartu-emanen
emaitza paregabek da. Bertsolaritzaren
historia, garai ezberdinetako bertsolari
esanguratsuen bizitza, txapelketa
nagusiak, jokoak, doinuak, bideoak...

Bertsolaritzaren munduan sartuta dagoenak eta bertan murgildu nahi duenak tresna paregabea dute *Bertsoen Munduan*.



CD-Romean agertzen den bideo bateko irudia

APIRILAREN 3 ETA 4AN IZANGO DIRA PRUDENTZIO
DEUNA - ESTIBALIZKO AMA IX. BERTSO SARIKO FINALERDIAK

BADATORRELA



Izotz
 Gartzia,
 aurtengo
 Bertsolari
 Gazteen
 txapela
 lortu
 ostean
 nagusiekin
 neurtuko
 ditu
 aurreneko
 indarrak

Prudentzio Deuna - Estibalizko Ama IX. Bertso Saria jada gertu daukagu. Izan ere, apirilaren 3an eta 4an izango dira finale-rako txartela emango duten bi finalerdiak. Aurtengoak inoiz baino partehartze zabalagoa izan duenez bi izan dira (bakarraren ordezt) Txapelketan aritzeko gairiditu beharreko kanporaketak.

Horrela, martxoaren 14an Florida Kultur Etxean eta 18an Txusta tabernan lehen bi kanporaketak egin ostean, martxoaren 27an final laurdenak burutu ziren. Hor sei bertsolarik finalerdietarako urratsa eman zuten eta iaizko finalean aritutakoekin lehiatu beharko dute azkenaurreko bi saioetan.

Finalerdiak apirilaren 3an, Laudio-

ko Kultur Etxean, eta 4an, Agurain-
go Zinema Aretoan, izango dira.
Finala berriz, apirilaren 19an, igan-
dea, goizeko 11:30etan Gasteizko
Florida Kultur Etxean.

Bertso bazkaria

Finalaren egunean bertan eta Gasteizko Bertso Eskolaren 15. urteurrena ospatzeko, bertan diren eta izan direnak bildu nahi dituen bertso bazkaria egingo da Txusta tabernan. Bazkalondoan, gainera, hamabost urte hauetan bertsoeskolakideek jarritako bertso-paperen kantaldia burutuko da. Beste ezustekorik, noski, ez da faltako.

Izen ematea: Bagare Euskaltokian
apirilaren 17a baino lehen (25 10 84)

**CEGASA PILAK
 INDARTSUENAK
 ETA
 EKOLOGISTENAK**

CEGASA
 INTERNATIONAL
ALCALINA

MERKURIO-KADMIOTAN
 %0a

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
 Artapadura, 11 - Apdo. 355
 Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

LA RIOJANA
jatetxea
on egin! EGUNEKO MENUA
ETA KARTA
Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39

**PUBLIZITATERIK MERKEENA
ETA ERAGINKORRENA**

GELU

GASTEIZ

PEDRO ASUA, 2. 3A.

22 21 53

MINTXO CEMILLAN en bi aurpegiak

MONTEHERMOSO KULTURUNEAK ETA CAMPUSEKO ARETOAK
CEMILLANEN ERAKUSKETA BANA JASO DITUZTE MARTXOAN

Mintxo Cemillan sortzaile gasteiztarra izan dugu, eta dugu oraindik, hiriko marxoko eskeintza artistikoren protagonistetako bat. Izan ere, Arabako Campuseko Pabilioiak bere marrazkiez osaturiko erakusketa bat jaso izan badu (apirilaren 2ra arte), Mintxo bera ere izan da Paraiso Antzerki Taldeak Montehermoso Kulturunean antolatu duen 'Antzerki Sortzaileak' erakusketaren diseinatzailea.



Apirilaren 19ra arte ikusgai izango den mostra honetan, Paraiso taldeak antzerkia hurbildu nahi die ikusleei, ohiko antzeskizuna ez den ekitaldi baten bitartez. Erakusketak Mintxo Cemillan eta Ana Fernandezek eskulturak jasotzen ditu, Pilar Lopezen ideia batean oinarrituak daudenak.

'Antzerki Sortzaileak' trilogia baten aurreneko atala da, ondoren, 'Antzerkiaren Adinak' eta 'Antzerki Hizkuntzak' erakusketak antolatuko baititu Paraisok. Bai oraingoa, bai datozen hilabeteotan burutuko diren beste bi horiek ere laguntzaile batekin bisita daitezke. Teatro Paraisok Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundiko Kultura Saila, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Euskadiko Kutzaren laguntza izan du.



Mintxo
Cemillan
'Interben-
tzioa
pabilioian
muntaiak
ikuslea
txundituta
uzten
du
erabat.

TESTUA: ASIER PZ. DE KARKAMO ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

erakusketak

A.L.H.A. M. Angel Manovelek 'El Mundo desde 1,75. Paisajes aereos' argazki-mostra du erakusgai Arabako Lurralde Historikoko Agiritegian. Apirilaren 18a arte iraundu zabalik.

UDAL FONOTEKAK.

Arana, Ariznabarra, Arriaga, Judimendi eta Lakua Gizarte Etxeetako Fonoteketan 'Bidai Musikalak' izeneko erakusketaz gozatu dezakegu. Mundu osoko musiken inguruko dokumentazio anitza (entzuteko, ikusteko, bibliografikoa...).

HIRUGARREN

ADINA. Martxoaren 17tik eta apirilaren 5a arte Luis de Ajuria (Alava Jeneralaren kalea, 7) eta Pajarita Aretoek (Aitzogile kalea, 22) Hirugarren Adinari zuzenduriko Arte Lehiaketan aurkezturiko lanak erakusgai dituzte.

TRAYECTO.

Ramon Guillen-Balmes kataluniarrak *Modelos de Uso* lana du erakusgai apirilaren 18a arte. Erakusketak gizakiaren gorputzaren luzapen diren eskulturak jasotzen ditu, besteak beste, Leonardo Da Vinciren eragina isladatzen dutenak.



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ



ale hop

GASTEIZ

beltz

bilakatu zaigu



Herri
honek
gorputza
magitzeko
premia
handia
dauka

Hilabete gutxi behar izan zituzten Ale Hop taldearen lagunek euren proiektua martxan jartzeko. 1996eko amaieran Timoteo Ozaetak produzitutako laukotearen estreinako maketa, *Toma Claro*, ailegatu zitzaigun. Ondoren,

iazko maiatzean, *Desobedientzia* kanta bilduman parte hartu zuten *Mambo Insumiso Mix* abestiaz, eta irailean Arrasateko SHOT estudioetara abiatu ziren, orain aurkeztar dugun *Para Vivir Asi Mas Vale no Morir Nunca* izeneko diska hau gra-

Ale Hop taldea hirukote jaio zen 1996eko maiatzean, baina berehala laukote bihurtu zitzaigun. Ruben, Topo, Peru eta Amaia dantzarako musikaren alde gogor ari dira. Betiko rock erakuntzatik aldendu nahi dute, eta hau guztia lortzeko asmoz erritmo ezberdinetan dauzkagu murgilduta. Hip-hop-a, raggamuffin-a eta ska euren hitzak erakitzeke oinarri dituzte; hip-hop-aren neurrietara egokitutako droga, dibertsioa edo militarismoari buruzko testuak, hain zuzen ere.

TESTUA: **TXABI ARNAL GIL**
ARGAZKIAK: **ALE HOP**

batzekotan.

Kontzerturik ez dute faltan izan, eta hau kontuan hartzekoa da, zeren Euskal Herrian ez baikaude Ale Hop-ek eskaintzen dizkigun bezalako soinuak entzutera oso ohituta.

Hemen duzue Rubenek, Topok, Amaiak eta Peruk kondatu zigitena, eta KDan hiru ahots ezberdinez, armonikaz, programadoreaz, saxoz eta baxu batez sor daitekeen musika entzuteko aukera.

Hauke, bada, salaketa, dantza eta dibertsiorako garaia!

Hauke Ale Hop taldearen ordua.

IRVSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea **GASTEIZ**

96eko maiatzean taldea sortu, abenduan estreinako maketa kaleratu, eta iazko irailean lehengo KDa. Batek pentsa lezake azkarregi zoaztela.

Gure iritziz ez gabilta oso azkar, ezta oso motel ere. Maketaren emaitza ona izan zen, eta hori horrela, hurrengo pausoa emateko prest ginen; kalitate handiagoko grabazio bat egin nahi genuen. Abesti berriak konposatu eta dirua lortu ondoren KDa grabatzea erabaki genuen. Gainera KD formatoak erabilera erreza goa dauka tabernarientzat, zein irati mintzalarientzat.

Euskal Herriko musika arloan hutsune bat betetzeko aurretiaz pentsatutako ideia al da Ale Hop?

Atsegin duguna egiten saiatzen gara, hip-hop-a, eta dibertitzen, hain zuzen. Herri honek gorputza mugitzeko premia handia dauka. Giharreak eta hezurak astintzeko garaia heldu delakoan gaituzue.

Dantza, ondo pasatzea eta salaketa. Horiek dira hip-hop musikari dagozkion adjektiborik aipagarrienak?

Bai, eta hori bultzatzen saiatzen ari gara. Osagarriak dira zeuk aipatutako hitzak, hori uste dugu guk behintzat.

Zuen musika tankera ohikoa ez den zenbait lekutan jotzen duzue, gaztetxeetan adibidez. Nolako harrera jasotzen duzue horrelakoetan?

Erantzun ezberdinak izaten ditugu. Leku batzuetan, zenbait gaztetxetan gehienbat, hasiera hotza izan arren entzuleak erakartzea lortu dugu, eta denok elkarrekin, bai entzulegoa bai taldea bera, oso gustura egon gara dantzan eta abesten.

Para Vivir Asi Mas Vale No Morir Nunca izeneko lan hau zuen kabuz argitaratutakoa eta zabaldurikoa omen da...

Bai, Beti-Erne diskaren bat edo beste banatu izan duen arren, gu geu

gara lan horietaz arduratzen gare-nok.

B.B. King-ek sortutako Stand By Me abesti ospetsua bertsio-natu duzue zuen estreinako KD honetan. Badi-rudi dantza taldeek abesti klasikoak jotzeko duten ohiturari heldu nahi diozuela.

Ez, *Stand By Me* jotzen dugu kanta ederra delako, besterik gabe. Gustukoa dugu entzutea zein jotzea. Gainera, betidanik egin dugu bertsioen bat gure agerraldietan.

Ingelera, euskera, gaztelera... Etor-kizunean Ale Hop-ek hizkuntza hauetariko bat izango du nagusi?

Ez, ez. Txinera edo finlandiera ikasiko bagenu gure hitzetan entzun ere entzungo zenituzkete. Baina horrek ez du esan nahi hizkuntza nagusi bilakatu behar direnik. Guk euskeraz eta gaztele-raz abesten dugu gehienbat. Inge-lera erabiltzen dugu, bai, baina ez guk sortutako abesti batean, baizik eta lehen aipaturiko bertsioan.

Nahiz eta talde-ko zenbait musikaririk proiektu desberdinetan parte hartu, lehentasuna Ale Hop-ek al dauka?

Ale Hop aurre-ra doa. Talde batean edo beste-an egoteak ez digu oraindik inolako arazorik

sortu. Taldeak gizentzen jarraitzen badu, arreta handiagoa eskatuko digu. Orduan zerbait pentsatu beha-

rrean egongo gara, baina, lehen esan dizugun beza-la, orain arte egoera honek ez digu problema-rik sortu.

Oraindik ez dugu ulertzen diskari izena ematen dion esaldia.

Pentsatzea egokitzen zaizu, bada, mutila. Gure lagun batek askotan era-biltzen duen esaera bat da, gogoko dugun esal-

dia. Laguntzarik behar duzue? Bai? Entzun; guk horrela bizitzea atsegin dugu. Nahiko?

Ez al duzue inoiz erritmo gogorren eremu honetan bakarrik zaude-tela pentsatu ?

Gure jarraitzaileak ditugu. Jendeak gero eta gehiago zabaltzen ditu bela-

rriak soinu berriak entzuteko. Gainera, gure zuzenekoak rockzale amorratu-ene ere dituzte gogoko. Bestetik, Kataluñan eta Balentzian, non jendeak Euskadin baino harrera zaba-lagoa egiten duen, askotan jotzen dugu. Badakizu, Euskadi ez da gozatzeko dugun leku bakarra.

Hiru hitzetan defi-nitu al daiteke Ale Hop?

Bai, zuk zeuk egin duzu hasiera-ko galdera baten bitartez; dantza, salaketa eta diberti-tzea.



Jendeak
gero eta
gehiago
zabaltzen
ditu
belarriak
doinu
berriak
entzuteko,





ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna



Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 **20600 EIBAR**



Uetzal

*Hego Amerikako
jantzirik ederrenak*

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52



gaurkoak eta betikoak

rock'n'rolla-aren historia formato berrian



IZENBURUA: LED ZEPPELIN III

TALDEA: LED ZEPPELIN

DISKETXEA: ATLANTIC

URTEA: 1970

Remasters izeneko diskaren eskutik, Led Zeppelin laukotea gaurkotasunera hurbildu zaigu azkenengo hilabeteetan. Jimmy Page, Robert Plant, Jhon Paul Jones eta John Bonhamek 60. hamarkadaren amaieran osatu zuten talde mitikoarengana belaunaldi gazteenak erakartzeko hirugarren saio arrakastatsua gertatu da, eta, egun, laugarren ahalegina martxan omen dago.

Lehendabiziko Remasters diska bera izan genuen orain hiru urte. Talde askok laukotearen eragina eta garrantzia aldarrikatu ondoren, Atlantic Records disketxeak une egokitzat jo zuen hura, Jimmy Page-ren taldea dendetara eta rockzaleon belarrietara eramateko. Lortu ez zuten arren, Atlantic-ekoek ez zuten adorea galdu. Bigarren saioa, Encomium, A Tribute to Led Zeppelin diskaren bidez egin zen. Diska interesgarria, dozena bat taldek eta bakarlari ezagunek laukotearen abestiez osatutako hura. Bigarren ahalegin honek lehenengoak baino arrakasta handiagoa izan bazuen ere, helburua ez zen bete.

Eta bigarrenaren atzetik hirugarrena heldu zen. Horrela, bada, gabonetan Remasters bigarren aldiz kaleratua izan zen. Led Zeppelin berriro ere garrantzitsu, eta laugarren hinka eman ahal izateko bidea libre eta prest.

Eta laugarren pausu honetan parte-hartzaile dugu hurrengo lerroak beteko dituen lana; Led Zeppelin III izeneko diska, hain zuzen. Remasters-ek hartutako harrera ona ikusita, taldearen diskografia osoa berrargitaratzeko bidea eratuta zuen argitaletxeak; eta jakina, aukera ezinhobe hau ez dute galdu nahi izan.

Zeppelindarrek euren hirugarren lana 1970 urte hartan kaleratu zuten. Lehengo bi diskak salmenta handikoak izan zituzten, eta, gaine-

ra, inortxok taldearen garrantzia eta kalitatea zalantzan jar ez zezan, bazuten bizkarrean itsatsita sekula galdu ez duten sanbenitoa: "hona hemen rock gogorraren sortzaileak".

Hala ere, hirugarren lan honetan moteldu zitzaizkigun Led Zeppelin-ekoak, eta martxa handia entzutea espero zuten guztiek ezin izan zuten gogoia bete, ez. Led Zeppelin III honek rock gogorrari eskeinitako minuturik falta ez badu ere, soinu latzak ez ziren nagusi. Immigrant Song abestiak indartsu ematen zion hasiera diskari, baina gainontzekoak ez zetozen bat estreinako kantarekin. Celebration Day rock and rollean murgilguta agertzen zitzaigun, rock and roll hutsean, gogortasunak riff garbiei lekua uzten zielarik.

Zeppelinekoek hirugarren lan hartan rock gogorra ahaztua zeukaten, ez ordea norabidea galduta, ez; inola ere ez. Nahiz eta azele-radoreari beheraino zapalduzik ez eutsi, laukoteak bazekien abesti bikainak nola sortu. Adibide garbiak Tangerine balada ederra, (ez zaigu beste adjektiborik bururatzen kanta hau deskribatzeko), Bron-y-aur Stomp (akustikoa, country soinueta hurbiltzen zena, alaia eta bikaina), edota Since I've Loving You blues-a ditugu

Gaur egun Zeppelin-en berpiztearen bosgarren pausua gauzatzear dagoela dirudi. Entzun eta irakurri dugunez, Page eta Plant elkarrekin ditugu berriro ere diska berri bat grabatzeko asmotan, eta, honetaz gain, zuzenekoetara bueltatzeko prest. Bonham ez da inoiz bueltatuko, eta Jonh Paul Jonesek ez du plan berrietan parte hartuko.

Badirudi Led Zeppelin bikote bilakatuta itzuliko zaigula. Ikusiko dugu! Guk, etorri beharrekoa datorren bitartean, dastatuko dugu diska klasiko handi hau, eta, gero gero-koak!

gureak

Arabako taldeen azken ordua

Kaos Etiliko Aguraingo taldeak apirilean argitaratuko du bere lehenengo CDa, Gor-rekin. Gor-ren bidez ere martxoaren 19az geroztik, La Pollak zuzeneko berria du disko-dendetan: La Polla en turecto

Zero Recordsek Cicatrizen Zhiru diskoak bernahastu, masterizatu eta portadak 'hobetu' ditu. Martxoan salmentan jarri ziren Colgado por ti, 4 años, 2 meses y 1 día eta En directo 1983-1994.

Soziedad Alkoholika talde gasteiztarra Estatuan zehar dabil No intente hacer esto en su casa lana zabaldu nahian.

Apirilaren 3 eta 4ean Lleida-ko Balaguer herrian Dr. Martens International Ska Festival burutuko da. Talde pila bat ariko dira bertan. Larunbatean, Betagarrik gorritz jantziko du Croseko pabilioietan eraikiko den eskenatoki erraldoia, besteak beste, Bad Manners taldeari bidea berotuz.

Potato izango da aurten Esparrago Rock Festival ezagunean ariko den talde arabarra. Martxoaren 21ean Murtziako Pimenton Rockean beste 11 talderekin batera izan ostean, apirilaren 4ean Sevillan izango ditugu. Potato guztiz utzi gabe eta Festival haundiekin jarraituz, Arawak taldea (Potatoko kide-ohi batzuek sortutakoa) Mostolesen joko du, maiatzaren 1ean, Festivalmad 98an.

ONGI ETORRI

xurru

KUTXI 103 GASTEIZ

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

AGENDA

ANTZERKIA

L'Estaquirot Teatre. 'Gerripau' erdi aroko testuingurua isladatzen duen haur-erentzako antzesian gozagarria da. Toni Albàren zuzendaritzapean, zaldun, aztu, herensuge, apo eta hamaika sorginkerik eskenatokia bere egingo dute txikien gozamenarako.

Principal Antzokia. Apirilak 5. 18:00.

Sarrera bakarra: 900. 16 urtetik beherakoenentzat: 450. 16 10 45]

MUSIKA

Euskadiko Orkestra

Sinfonikoa. Arturo Tamayoaren zuzendaritzapean eta Pietro Borgonovo bakarlari gisa ariko delarik, EOSak Iturrizaga, Castro eta Jesus Guridiren lanak interpretatuko ditu.

Principal Antzokia. Apirilak 24. 20:00.

Besaulkia: 2100. Anfiteatroak: 1250. (16 10 45)

Tomas San Miguel. Musikan

Gasteizarraren Ten diskoaren aurkezpena. San Miguelekin batera Samaniego abesbatza, Javier Paxariño (saxoa eta flautak), Fernando Auzmendi eta Ibon Otxoa (txalaparta), Kepa Junkera (trikitixa eta panderoa), Ibon Koterón (alboka), Michel Exekopare (txirula), Luis Delgado (perkusioak) eta Jose Pereira (baxua).

Principal Antzokia. Apirilak 4. 20:30.

Sarrera bakarra: 1500. (16 10 45)

Rigoletto. 1851eko urtarilean

Giuseppe Verdik bere bizitzako poztasun handienetakoa jaso zuen autoritateek Rigoletto izeneko opera onartu baitzioten. Europako Antzerki Lirikoak Gasteizen antzes-tuko du Verdiren lanik garrantzitsuenak.

Principal Antzokia. Apirilak 21. 20:30.

Besaulkia: 3000. Anfiteatroak: 2500 eta 2000. (16 10 45)

Soziedad Alkoholika, Anestesia eta Blind Dead.

Laudio. Apirilak 4.

Arabako Helduen Kantu

Txapelketa. Maiatzaren 9an Araian ospatuko da aurtengo Arabako Helduen Kantu Txapelketa. Ekitaldi honek herrialdeko euskal kantagintzarako zaletasuna berpiztea da. Partehartzeko edo beste zerbaiteko informazio gehiago nahi duenak Bagare Euskal tokira dei dezake.

Bagare Euskal Tokia.

Aiztozile kalea, 62. (25 10 84)

Marboaren 3ko emanaldi arrakastatsuko une bat



BERTSOLARITZA

Trikibertsoa. Jon Enbeita, Aitor Mendiluze eta Jokin Sorozabal

Gozategi anaien jarritako doinuak kantatuko dituzte. Principal

Antzokia. Apirilak 22. 20:30. Sarrera bakarra: 900. (16 10 45)

BERTSOAK

Trikibertsoa. Udaberriko lore guztiak lanean, Bederen 1 Antzerki taldeak maitatu eta maitatuak izatea desira duten lau pertsonari biitzen ditu.

Principal Antzokia. Apirilak 7. 20:30. (16 10 45)

Prudentzio Deuna - Estibalizko

Ama IX Bertso Saria. Arabako Bertsolari Elkarteak, Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara Sailaren laguntzaz, Araban bertsozaletasuna sustatu eta bertako bertsolariet bultzada emateko asmoz, Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama IX Bertso Saria antolatuko du.

FINALERDIAK:

Apirilak 3, ostirala. 19:30etan. Audioko Kultur Etxean.

Apirilak 4, larunbata. 11:30etan. Aguraingo Zinemaren.

FINALA:

Apirilak 19, igandea. 11:30etan. Gasteizko Florida Kultur etxean.

Finalaren egunean bertan, Gasteizko Bertso Eskolaren XV. urteurrena ospatzeko, Bertso Eskolatik pasatako guztiak Bazkaria egingo dute Txusta tabernan.

BIDEOA

Bidaia zineman. Udal Fonoteka Publikoek antolatzen dituzten ekitaldien artean, musikaren inguruko bideo zikloa eskemiko da Judimendi Gizarte Etxeko fonotekan.

Judimendi fonoteka. Apirilak 2, 17 eta 24.

18:30. (16 17 30)

Bideo Jaialdia. Gasteizko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailek ekainaren 29tik uztailaren 4ra bitartean egingo den Bideo jaialdirako deialdia egin du. Izenemate orria maiatzaren 19a baino lehen bidali behar da da Montehermoso Kulturunera. Izen emate orriak Kulturunean bertan edota Gasteizko edozein Gizarte Etxetan eskura daitezke.

Montehermoso Kulturunea. Frai Zacarias

Martinez kalea, 2.

01001

(16 12 68, 16 18 19 eta 16 13 39)

www.vitoria-gasteiz.org/fvideo/

LEHIAKETAK

Ipuin erotikoen III. lehiaketa.

1982an edo lehenago jaio direnei zuzen-



duta dago Basauriko Euskarabila Elkarteak

APIRILEKO gomendapena

Aramaioko Udalak Sagitario Literatur Saria antolatu du, Europako mendebaldera edo urrunago bidaiatu dutenentzako. Partehartzaileek bidaian zehar bizitutakoak kondatu beharko ditu 30 eta 40 orri bitarteko luzeran.

Lanak aurkezteko epea urrun da, irailean, baina Aste Santua gertu dugunez ideia ona iruditu zaigu, kanpora zoaztenentzat, literatur sari honen berri ematea.

Lehiaketa euskaraz eta gazte-leraz da eta 100.000 pezetako sari bana dago bi modalitateetan lanik hoberenak idazten dutenentzat.

Aramaioko Udaletxea

01160

Aramaio (Araba)

945 44 50 16

antolatu duen ipuin erotikoen lehiaketa hau. Lanak entregatzeko epea apirilaren 24ean amaizten da. Oinarriak eta informazio gehiago eskatzeko.

Euskarabila Elkarte, 146 - P. k. 48970

Basauri. (94 - 44 06 217)

IBILALDIAK

A.N.I. Arabako Natur Institutuak bi ibilbide egingo ditu Apirilaren 18an. Aurrenekoa txango gidatua izango da. Gasteizko mendietatik zehar. Bigarrena, berriz, Nafarroa eta Errioxako lurretan zehar burutuko den txango ornitologiko bat izango da.

Lau urtarok Gasteizko mendietan.

Apirilak 18.

Las Cañas-Pitillas-Alfaro

Apirilak 25.

(24 66 06)

piti pata

txikiak

JAIOBERRIAK

Azkenean bai!

Horixe bera esan zuten Daniel eta Ibanen gurasoek orain dela hiru hilabete. Egun horretan Daniel, txikiena, 2,8 kilorekin eta Iban, haundiena, 2,9 kilorekin zesa-reaz heldu ziren gure artera.

Bere gurasoen ideia hasieratik bi seme alaba edukitzea izan da, baina bikiak zirela ikusita, usteka-be polita hartu zuten.

Gezurra badirudi ere, bi haur maitakor hauek ez diete buruko min askorik ematen bere gurasoei. Hala ere, ume guztiak bezalaxe



negartiak dira eta txikiena, Daniel, gehixeago. Iban, aldiz, lasaiagoa da. Dena den, gurasoentzat agian, are politagoak eta maitagarriagoak, lo egin bitartean; ulergarria, ezta?

URTE BATZUK GEROAGO, 2-5 urte

Barbyzalea

Cintiak, ohikoa ez bada ere, Dragoi Bola antzeko marrazki bizi-dunak ez ditu batere gogoko, bere



gustuak beste ildo ezberdin bate-tik doaz, hala nola eta berak esan zigun bezala, gustatzen zaizkion marrazkien protagonista ume berde bat da.

Jostailuei dagokienez, berari gehien gustatzen zaiona ezaugarri hauek dituen panpina da: fama haundikoa da neskatilen artean eta orain dela urte pare batzuk mutila dauka,...zer?... oraindik ez duzula asmatu zein den Cintiaren panpin gogokoena?... ba ... Barby dotorea. Gainera, Cintiak Barbyren mutila dauka eta oporretara joateko karabana zoragarria ere bai.

Animaliak asko maite ditu eta txakurra ala katua hautatzekotan, katua aukeratuko luke, bere herrian Lilit izeneko katu bat du eta.

Ipuina

Bazen behin herri baketsu bat. Egun batean bere etxean zegoen emakume batek purea egin nahi zuen eta purea egiteko Azenarioa behar zuen. Azenarioa eta Labana hartu zituen, baina Azenarioak Labana ikusi zuenean ihes egin zuen. Emakumea, Azenarioa eta Labanaren atzetik joan zen, korrika-korrika, etxe osotik. Dena hankaz gora utzi zuten, eta emakumea nekatuta zegoenez, beste Azenario bat eta beste Labana bat hartu zituen, baina berriro gertatu

HAUNDITZEN, 6-12 urte



zen gauza bera. Horrela ordu bete eta emakumea kokoteraino zegoenez, Azenarioak lo egiten zuen bitartean Labana hartzea eta zatitzea pentsatu zuen emakumeak, baina Azenarioak alde egin zuen bere baratzara.

Eta emakumea baratzara joan zen, Azenarioari barkamena eskatzera. Eta hortik aurrera denok alai egon ziren.

Maite, 12 urte. Barrutia Ikastola.

ba al zenekien



Walter Elias Disney Chicagongo jaio zen (Estatu Batuak), 1901. urtean. Telebistan eta zinemagintzan aritzen zen, zuzendari eta ekoizle.

1928 urtean sekulako arrakasta lortu zuen Mickey arratoiaren marrazki bizi-dunekin.

Mickeyren abenturak marrazki bizi-dunetan soinu izaten lehenen-

goak izan ziren. Izan ere, hasieran mutuak ziren marrazki bizi-dunak.

Hamar urte geroago Walt Disneyk bere aurreneko Oscar-ra irabazi zuen Snow White and the Seven Dwarfs (Edurnezuri eta Zazpi Ipotxak) filmagatik. Filmea izan zen gainera, luzapen handiko aurreneko pelikula; lehenago filme motzak besterik ez ziren egiten.

Hogeita zazpi urte zituenean

ekoizle: filmak egiteko behar den dirua jartzen duena
Oscar: zinemagintzako sarbidera ematen duen el Sabio Fundazioa

aurreneko: lehen, lehenago

apirila



Txaloak, kezak...

Hamabost urteko neska honen ustez, Gasteizko hiriaren itxura ezin hobea da, eta alde horretatik ez dauka kezka handirik.

Beste kontu bat da kontzertuak antolatzeko orduan dagoen kopuru murrizketa, Amaia iritziz kontzertu gutxi programatzen baitira.

Asteburuetan, beste gazte askok bezala, amarekin borrokatu bueltatzeko ordua dela eta, eta ondoren, seietatik hamarrak arte alde zaharreko kaleetan zehar ibiltzen da. Berak beste kexa bat jakinarazi zigun: tabernetako edarien salneurria nahiko garestia dela; horrez gain, batzuetan tabernetan sartzeko arazoak dituzte, karneta eskatzen dietelako.

Bukatzeko txalo haundi bat eman nahi dio Alaveseko denboraldi zoragarriari eta nahiz eta futbole-an oso jantzita ez egon, bere itxaropena, guztiona bezala, hurrengo urtean Alaves taldea lehenengo mailan egotea da.



erik ruiz



maialen




guillermo lazkoz

nePea P.



julen manterola



apirileko artistak **Barrutia**

Ikastolako **ika**stleak izan dira.

Datorren hilabeteotan **zure**

marrazkia argitaratua ikusi


nahi baduzu bidaliguzu honako

helbidera:

Geu Gasteiz aldizkaria **Pedro** Asua kalea 2. ja.

Walterrek 'Disneylandia' izeneko hiria sortu zuen Kalifornian. 'Disneylandia' izugarritzko jolas-parkea zen, garai hartan munduan heziketari zuzenduriko gunerik handiena.

Hurrengo urtee-



tan marrazki bizidunen filmeak, komediak, abenturetakoak eta naturari buruzko dokumentalak ekoiztu zituen. Telebistarako hainbat programa ere sortu zituen.

Walt Disneyk guztira 31 Oscar lortu zituen eta beste sari garrantzitsu asko ere bai, besteak beste, Yale, Harvard edota Cambridgeko Unibertsitateek eskeinitakoak.

BEGIRADAK II

Jon Maia / bertsolaria

asteizi bigarren begiratu bat eman nahi nioke.

Hiriaren gainetik hegaz, ala hirian barrena oinez, ikusi dudana baino, ikusten ez dudana konta nahi nizueke. Guneak falta zaizkigu euskaldunori. Aretoak. Lokalak. Elkartzeko eta dibertitzeko espazioak. Bai horixe.

Ez da Gasteizen edota Araban soilik jazotzen den arazoa, beste probintzietan ere hala da, baina hala ere, Gasteizen premia handiagoa dela deritzot. Azalduko dizuet.

Euskara eta euskaldunontzat, etorkizuna ez da erreza izango. Datozen garai berriek, gizarte eredu berriak, lege araudi, kanpoko kultura indartsuak, etab (etabetikoa)... gure hizkuntza babesik gabeko-arentzat, agian, gaindiezinezko oztopoak izan daitezke, Gasteizen moduko hiri batean. Irautearekin ez da nahikoa. Ikastearekin ez da nahikoa. Tabernek ez da nahikoa, eta kultur ekitaldi puntualen ez da nahikoa. Ez hemen, ez Donostian, ez Bilbon, ez Irunean... Gehiago behar da: euskal gune haundiago eta sendoagoak, erakargarriagoak eta dinamioagoak, indartsuagoak, garai berrietarako prestatuak, zabalak eta pluralak (ezinbestean), autogestionatuak eta lehiakorak, pribatuak baina derrigorrez herrikoiak.

Bai, badakit hau denok nahi dugula. Nik uste dut nahi baino gehiago, behar ditugula.

Begira espektakuluaren munda, begira diskotekak, begira produktora pribatuak, begirada batean dozenaka ikus daitezke. Baina euskarak ez du ezer, kalean, bere betiko taberna, txoko eta euskaltegitaz gain (eta eske-

rrak hauei eta sare horretan lan egiten duen jende-ari).

Balantza oso desorekatua dago haien alde, eta gure aurka, eta badakizue horrelakoetan denbora-ekin zer gertatzen den...

Ni Kafe Antzokiaren ereduaz ari naiz. Ez Kafe Antzokia bera eredu bezala, bere formato eta formula baizik. Gune indartsu eta zabalak, dinamiz-tzaileak, erakargarriak eta... pribatuak. Badakit hitz zatarra dela, bai, badakit diru asko behar dela, bai. Baina akaso beste diskotekak etab... ez dute dirurik behar ala? pribatua diot bai. Eta horretarako euskararen aldeko esfortzu bat, apustu bat, egiteko prest dagoen jendea behar da. Agian kolektibo, talde eta partikularren bateratzeaz, (euskararen inguruan beti ere) ez dakit...

Autogestionatzea, enpresa izaera edukitzea, edo fundazioarena, edo... Ezin gara egon beti gure nagusien limosnaren zai ezer egiteko, subentzioen zai, limosnaren zai, ez. Gune indartsuak: lokal, irrati, telebista... beharrezkoa da euskal gune indartsu eta lehiakorra izateko. Ni Gaztetxezalea banaiz, eta

tabernazalea ere, eta iraun deza-tela beti, baina beste gauza bate-taz ari naiz hizketan. Garaiak horrelakoak dira. Pausoak eman behar ditugu aurrerantz, eta etorkizunari begira prestatu egin behar dugu gure burua. Gure hiria eta gure hizkuntza. Ohiana erdaldun batean borrokatzeko arma indartsuak behar ditu eus-karak, eta zozketen garaitik, beste garai berri baterantz jotze-ko garaia dela uste dut, ausar-diaz eta hankak lurrean.



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA
URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3
☎ 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3
☎ 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 El Pilar auzoa
☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



Floridako altxorra !

35



adaka **M**
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

umorea
Txeroki

IÑIGO SARASOLA



ARABAKO EUSKARAREN LEKUKOAK

Mikel Garmendia / idazlea

intzagai ez ezik, eztabaidagai ere badugu azken boladan euskara gure herrialdean: euskararen foru araua dela, A ereduaren aurkako zein aldeko jarre-rrak...

Fernandoren egia esatetik hasi beharko genuke nire ustez, esan nahi baita, ezertaz aritu edo ezta-baidatzeko ezinbesteko baldintza dugu, derriorra, ezer hori ezagutzea. Ezagutzea, bai, baita ezagutu ondotik ukatzeko izango bada ere. Baina sekula ez alderantziz.

Muga dezagun, bada, gutxienez ezagutu behar-rekoa: a) gure herrialdean zabaldua egon zen eus-kara XVIII. mende bukaeraraino bederen, b) hain-bat testigantza edo lekuko ditugu baieztapen horri eusteko eta d) testigantza horien azterketa egin dutenen ekarriak irakurrita dakigu Arabako euska-rak (Oihenartek gipuzkerarekin lotzen baitzuen, Larramendi eta Bonapartek bizkaierarekin eta Añi-barrok, berriz "nahasi"-tzat jotzen) hiru aldaera erakusten dituela, goitik beherako isoglosen arabe-ra: mendebaldekoa (Betolaza), erdialdekoa (Landu-chio) eta ekialdekoa (Gamiz...).

Hiru aldaera izateaz gaineztabaidagai jarraitzen du oraindik, bestalde, Koldo Zuazok iradokitzen digunez, arabera euskalki kontzeptuak berak. Gure hiriari, bistan da, erdialdeko aldaera legokioke eta, dialektologi xehetasunetara jaitsi gabe, badirudi baieztapen orokor gisa bederen esan genezakeela Gasteiz inguruan mintzatu izan den euskarak biz-kaierarekin eta besterekin azaltzen dituen pareko-tasunez gain, nabarmen sartua zuela elementu erromanikoa. Horrexegatik ez dugu ezagutu, hain zuzen ere -Mitxelena argi eta garbi salatzen due-nez-, oso berandu arte Landuchioren hiztegia,

lehen euskal hiztegia, bestalde. Hiztegi horren berri izan arren ezkutuan gorde izan zuten -edo ez zuten beraren berri eman bederen- Larramendi eta haren zenbait ondorengo eta jarraitzailek.

Salaketak salaketa, gogoeta bat baino gehiago eragin beharko ligukeela esango nuke Gasteiz ingu-ruetan zer-nolako euskara erabiltzen zen ezagutze-ak.

Eta tresna ezinez bikainagoa eskaintzen digu oraingoan Eusko Legebiltzarrak idazlan honen izen-buru berarekin bere Euskal Azterlan Bildumaren barruan eta Henrike Knörr eta Koldo Zuazoren ardurapean plazaratu berri duen Arabako euskarari buruzko liburu interesgarri bezain estimagarriak. Liburuan, Mitxelena, Henrike Knörr, Koldo Zuazo, Zoilo Calleja, Joseba Lakarra, Fidel Altuna, eta Angel Ibisateren ikerlanez gain honako testuok aurkituko ditugu:

- Nicolao Landuchio italiarrak 1562 aldera osatutako hiztegia, eta berorren iraulketa;
- Betolazaren dotrina (1596);
- Simón Martínez de Ochoaren erdal-eus-kal Eguberri kanta (1695);
- Joan Bautista Gamiz sabandoarraren ber-tsoak (XVIII. mendea);
- 1778 inguruan egin eta aurkitu berria den Julian Garcia de Albeniz araiarraren izkribu laburra;
- Martín Portalek 1610 aldean ondutako poesia.

Liburu interesgaria benetan eta aurrerantzean Arabako euskaltegi eta ikastetxe guztietako liburu-tegietan nahitaez egon (eta aztertu) beharrekoa, dudarik gabe.

q

EGOA LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 14 88 95

jo eta ke

TXAPELARRI

TABERNA

KUTXI
kalean

Argazki - Estudio

Eramun

Heraclio Fournier, 23 Libertad, 5
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91
01006 01004

333
guz gasteiz

APIRILA: ARABARREN HILA

Abel Enbeita / bertsolaria

eguari lepoa eman diogu. Neguari? Aurtengoa negua izan dela esateari gehiegitxo deritzot. Haize epelaren agindupean izan baita unerik gehienetan. Biguna eta beldurtia joan zaigu negua. Zuhaitzak goizegi loratu zaizkigu. Izotz berantiarren batek zapuztuko ote dituen susmoak dauzkat, etxeko fruituak dastatzea ukatuz.

Eta Apirila, Bizkai-ko zenbait tokitan Loraila ere deitzen zaio. Iritxi da bai urteko laugarren atala. Araban kultur eta Jai hila deitzea ez litzake pekatua izango, ez horixe!

Martxoan kanporaketak eta final laurdenak gairitu ondoren, Apirilak eskuabalik ematen dio ongoetorria 'Prudentzio Deuna - Estibalitzko Ama' Bertso Sariaren IX. aldiari.



Hala, 3an sailkaturiko hamabi bertsolaritik seik Laudion ekingo diote lehen finalerdiari. Hurrengo egunean, 4an, beste seirak Agurainen dute zita. Hauetako sei onenak, 19an, Gasteizko Florida Kultur Etxea finalean lehiatuko dira ondoren.

Kultur ekintza ugari beraz. Bitartean Aste Santua eta ondoren Prudentzio Deunaren omenezko jaiak, kultur eta kirolez gainezka. Armentiaiko zelaiek urteroko kolorez jantziko zaizkigu. Marrazkiloak, gizarajoak, hainbat eta hainbat kazuela apainduko. Denentzako izango da zerbait egun handi hauetan.

Hilabete pottoloa beraz. Bakoitzak aukera beza atseginen duen

ekitaldia (edo denak?) eta ahalik eta humore sanonean eta euskalduenean igaro. Hala izan bedi!

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
GASTEIZ

LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90 GASTEIZ

*Tu Invernadero
zure lore sortak*

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin

Eguneroko Menua

Betiko kazuelatxoak

GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA FUNTZIO PUBLIKOA IDAZKARITZA ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA ERROLDA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 08 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20 16 11 88 16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 16 68 16 11 33 16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIO- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g Ariznabarra, 19	16 17 40 16 16 82 16 17 60 13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA) BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



**Z E
E L
R E
B B
I D
T V
Z N
V A
K**

CASA DE CULTURA

Diputación
Foral de Álava

Arabako
Foru Aldundia

KULTURA ETXEA

KULTURA

CASA DE
ETXEA

HILTZA KULTUR ETXEAN APIRILA

Apirilak 8. Asteazkena • Arratsaldeko 8etan

"LUMAREN MUSIKA " errezitala: Iparraldeko literatura dastatzeko batez ere.

Irakurle eta kantariak:

- Arantxa Mendiherat
- Maialen Estecahandy
- Frantxua Cousteau
- Txomin Heguy
- Daniel Landart

Apirilak 15. Asteazkena • Arratsaldeko 8etan

"KANTU EROTIKOAK"

Diskaren aurkezpena

- Mikel Markez

Apirilak 23. Osteguna • Arratsaldeko 8etan

"HAITZETAN"

Diskaren aurkezpena

- Mikel Urdangarin

Diputación
Foral de Álava



Arabako
Foru Aldundia

Departamento de Cultura y Euskara Fundazioa Sancho de Salas Fundazioa Kultura eta Euskara Saila